

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Urtarrilak 18, 92. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



JULIAN SAGASTA,
Organojole
Erroman



Konponbide aldapatsua


IR

RICOH

TELEFAX-KOPIAGAILUAK

Avendaño 52 etxabehea, Tfnoa: 945 - 24 22 04. Fax: 24 64 97, 01008 GASTEIZ

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maita Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Urte berriari begira

1 991n idazten ditudan lehen lerroak dituzu, irakurle, hemengo hauek. Ohiturari jarraiki, nire lumak (harkatzak edota idazmakinak) hausnarketan azalpenari berekin dio, inolako helburu transzendentalik gabe, beste urte berri batean azkeneko hamaseitan egin dudana irauan erazteaz aparte. Izan ere, gustora garaturiko lanak sari apartekoa aurkitzen bait du ekinaren beraren funtsean.

Bihoa gaurko hau, urte berriak ekarriko digun ezezagunaren lekuko bezala, hau da, gure urratsek nondik joko duten esperantzaren ildotik. Atzean utzi ditugun egun zaratatsu bezain barnekoiak ahaztuta, errealitate gordinera garamatzen amaierarik gabeko gurpil eroak markatuko digu ezinbesteko patua. Hori, hitz xinpletan, nor beraren gaineko zoria dugu: txarra ala ona. Baina azken finean, zoria. Eta ene irudiz, giza egoera hori ere bilatu egin behar da, berandu baino lehen, besoak gurutzatuta gelditu beharrean.

“Fugit irreparabile tempus” zioen Virgiliok bere georgiarretan, denbora iraganaren ezezetapena adierazteko. Eta Eneidaren egilearekin bat nator, izan ere igarotako bizitzapenak oroimeneko mugarri beste ezertzat hartu behar ez direlako: gure bidaia partikularrean denborak eta zirkunstantziak marraturiko mugarri

tinkoak. Hori dela eta, aurrera begira egotea dagokigu, gure bizkarrean geratu diren erreferentzia horiei -etorkizuna antolatzeke, behintzat-gutxieneko arreta eskainiz.

Horixe da, hain zuzen ere, gizonoi gehien kostatzen zaigun ariketa. Ohitura-animaliak izanik, pisu larregiko kateak ezartzen dizkiogu iraganari, hortik bizi beharko bagenu bezala. Eta begiak idekitzen baditugu, gure okerraren salakuntza egin beharrean aurkitzen gara. Itxaropena ezezagutzan gordeta dagoela baieztatzen dugularik, prestatu egiten gara handik etor dakigukeen onerako... ala txarrerako. Hain handia den gure ahulezia!

Bake, osasun eta guztiontzako onginahia elkari opatuz abiatu gara urte berrian. Gutxi gorabehera, urtero egin dugun era berberaz. Ohitura horrek noraino ez gaituen gure muga estuetan iltzatzen galdetu beharko genioke gure buruari, izan ere, horrela gertatuko balitz gure desioak paperezkoak izango bait genituzke; haizeak inolako eragozpenik gabe hona eta hara eramango dituen paper suntsikorreko desio merkeak, alegia.

Gogo-gordailuan pilaturiko oroitzen antzuak ez bezala, bata bestearen atzetik datoz urteak. Bizi ditzagun indar berriz.

Jose Mari Velez de Mendizabal.



**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

olioak, lientzoak, **Artea** akuarelak eta eskulanak Ferrerías



ETXE-AUNDI

Ostiraletan d a s t a t u g u r e m e n u b e r e z i a k

3.500 pta.tan

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56 OÑATI

Arrasate Press-eko zuzendaria den Joxe Aranzabali

Astero irakurtzen dut Arrasate Press aldizkaria eta, benetan, gustora. Uste dut Arrasate Press-ekin aurrerakada galanta eman dugula Arrasaten euskeraren normalizazioan, are gehiago komunikabide gehientsuetan euskerari ematen zaion tratamendu lotsagarria ikusirik,

Euskeraz idaztea oso ondo dago baina beste guza bat da, nahiz eta euskeraz idatzita egon, zer idazten den eta informazioari zein tratamendu ematen zaion. Arrasate Press-ek herri honetan gertatzen denaren ahalik eta ispilu objetibo eta zabalena izan behar du. Betebehar hau, orokorrean, ondo betetzen du, nahiz eta, besteak beste, ezker abertzalearen inguruko hainbat ekitaldiri tratamendu marginalgia eman.

Gutun honen bidez Joxe Aranzabal-ek sinatzen duen "Usteak uste" zutabearen inguruan erreflexio labur bat egin nahi dut. Asteroko zutabe honetan sarritan somatzen dudan jarrera nahiko partziala iruditzen zait. Gai asko adarretatik heldu beharrean, azaletik heldu eta errealtate distorsionatu bat azaltzen digu. Adibide pare bat jarriko ditut:

-Herrian inork nahiko ez litzukeen iskanbilak sortzen direnean, bizi dugun egoeraren ezaugarri edo ondorio bezala azaldu beharrean, kontestutik atera eta gertatutakoak kritikatzera mugatzen da. Oso erreza da jarrera hau hartzen eta ondo gelditzea, baina jarrera hau objetiboa eta inpartziala al da?

-Duela hiru aste, 88. alean hain zuzen ere, Xabier Zubizarretak, Arrasateko alkateak, Udaletxearen inaugurazio ofizialaren inguruan aipatutako atalean jasotako kritika zorrotza ez zuen merezi. Xabierrek duen ardura ondo betetzea ez da erraza, aspaldi honetan egoera oso zailen aurrean aurkitu da eta, jarrera pertsonalista edo/eta "radikalak" hartu beharrean denon alkate bezala portatu da. Arrasaten mota askotako jendea bizi gara, baina kontuan hartu alkateak ordezkatzeko duen koalizioa maioritaria dela. Eta ez zenuke ahaztu behar. Alkateak eta Murua jaunak aipatutako inaugurazio egunean, elkarrekin eta modu adiskedetsuan pasatu zutela ia egun osoa, eta gertaturiko arazo formal eta eztabaidagarri hori baino mila arazo garrantzitsuez hitz egin zutela. Gertaturiko iskanbila ez ote da izango oraindik konpondu gabe dagoen arazo baten ondorioa? Informazioa eta balorazioak ematerakoan ere, ez da garrantzigoa izango, iskanbila formal batzutatuz gehiegi arduratzea baino, oinarritzko

arazoei irtenbide bat ematen saiatzea?

Ez dut adibide gehiago azalduko, baina kezkatu gelditu naiz Arrasate Press-en Urtekaria 90 hartzerakoan eta "Nor da nor Arrasaten" sailean, ez HBko zinegotzirik, ez alkatea bera ere ikusi ez ditudanean; beste alderdi guztietako partaide, bozemaile... eta Arrasatek aurreko legislaturretan izandako alkateak agertzen direnean. Arrasateko alkatea ez da inor bere herrian? Ez nuke sinistu nahi beste alderdietatik presiorik egon denik, bestela oso grabea izango litzateke. Pentsatu nahi dut gauza hauek eguneroko lan eta presaren ondorio direla eta, aurrerantzean, halakorik ez gertatzeko neurriak hartuko dituzula.

Besterik ez, editorial edo antzeko papera egiten duten atalak inpartzial eta objetiboagoak izaten, eta HBko pertsona publikoak, Arrasate Press-erako, bigarren "divisio" edo mailako biztanleak izaten jarraituko ez dutelakoan har ezazu nere agurrik adiskidekorrena.

J.A.L.B.

Usteak uste

88. alean *Usteak usten* agertzen zen artikulua irakurri ondoren, nire zorionik beroenak eman nahi nizkioke Joxe Aranzabali.

Udaletxearen inaugurazioan argi eta garbi geratu zen, hemengo eta "hemengo" batzuen artean izugarritzko ezberdintasunak daudela, eta ez politikoak bakarrik hain zuzen.


Hemen, egoera eta garai guztietan Aureskua errespetatu dugu. Euskaldunok behintzat.

Juan Jose Zabarte

Erredakzioaren oharra

Arrasate Presseko Urtekaria 90ean, *Nor da nor Arrasaten* sailean Mondragoeko Alkate eta HBko zerrendaburua agertzen ez bada, gure hutsegiteagatik izan da. Barkamena eskatzen diegu gure irakurleei eta gure herriko agintari nagusienari, eta eskerrik beroenak J.A.L.B.-ri hanka sartzeaz jakin erazi digulako.

Ondo ikusten duzu goardiako farmazia Bergara eta Arrasate artean banatzea?



Juan Sanchez
(jubilatua)

Nire herrian gauza bera dago, eta beste herri batera joan behar izatea nekagarria da. Gero eta hurbilago, askoz ere hobeto.




Ana Mari Sanchez
(etxeoandrea)

Ondo iruditzen zait; eurek horrela ondo dagoela pentsatzen badute, niri ondo iruditzen zait.



Ani Santana
(langilea)

Gaizki dagoela iruditzen zait. Joan beharra edukiz gero, nahiago dut farmazia Arrasaten egotea eta ez Bergararaino joan.




Juan Luis Aranburuzabala
(langabetua)

Oso gaizki iruditzen zait. Bergararaino joan behar duzu, eta gaixo bazaude hori oso urrun dago.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA


Memesa

79 42 22

KOPIOTXOA

Fotokopiak
Planu-Erreproduzioak
Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE



77 08 15

JOSTEKO OIHAL DENDA

Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90
ARETXABALETAK

Zubia itzulpenak

- Itzulpen jurutuak
- Interpretariak

Tfnoa: 945 - 26 65 02 / 22 71 95 GASTEIZ

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	79 97 22
.....	79 97 33
.....	79 97 44
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRIAOK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55



18 OSTIRALA

• • •

• Zinea: Alai. "Rocky V", 7 eta 9.30etan.

Amaia: "Paperhouse", 10.30etan.

Novedades: "La escalera de Jacob", 10.30etan.

• Udalaren Osoko Bilkura, Udaletxearen pleno aretoan. 19.00etan.

• Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

19 LARUNBATA

• • •

• Zinea: Alai. "Rocky V", 5, 7.30 eta 10.30etan.

Novedades: "La escalera de Jacob", 5, 7.30 eta 10.30etan.

• Dantza emanaldia, "Traspasos: lendo", Amaia antzokian gaueko 10.30etan.

• Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

20 IGANDEA

• • •

• Zinea: Alai. "Rocky V", 5, 7.30 eta 10.30etan.

Novedades: "El novato", 5, 7.30 eta 10.30etan.

• Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

21 ASTELEHENA

• • •

• Zinea: Alai. "Rocky V", 7 eta 9.30etan.

Novedades: "El novato", 7.30etan.

• IMI zentroan, C lengoaiaren 1. zatiaren ikastaroa.

• Gazteei zuzendutako "Sexualitate ikastaroa", Santa Teresa kaleko 12. zenbakian, arratsaldeko 6.30etan.

• Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

22 ASTEARTEA

• • •

• Zinea: Alai. "Rocky V", 7 eta 9.30etan.

• AEDn "Personaren garapen psikologikoa" izenburuaz ikastaroa arratsaldeko 3etan.

• Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

23 ASTEAZKENA

• • •

• Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

24 OSTEGUNA

• • •

• Zinea: Alai. "El cielo protector", 7 eta 9.30etan.

• Hitzaldia AEDn, "Dibortzioa" gaia, arratsaldeko 3etan.

• Goardiako farmazia: Amezua, Santa Marina.

Kirol Agenda

FUTBOLA

• • •

Igandean, arratsaldeko lauretatik aurrera Atxabalpeko futbol zelaian San Andres taldearen partidua.

SASKIBALOIA

• • •

Larunbatean, arratsaldeko 6etatik aurrera Centraljet Euskal Air-Loiola Indautxu taldeen arteko partidua Musakolako kiroldegian.

FUTBITOA

• • •

Zaldibarko futbito txapelketaren barne, 16 partidua asteburu gutxian zehar.

AUTO-KROSA

• • •

Igandea, goizeko 11.30etan Mietzerrekako auzoko jaien barne, autokros froga Sarako zelaian.

Aldizkariak

"Ikas-Txip" Euskara ordenadore bidez.

Badira lau bat hilabete HABEK talde berezi bat jarri zuela lanean euskara ordenadore bidez ikasteko programa egiteko. Zutabe aldizkariaren 24. alean gai horri buruzko artikulua interesgarria idatzi du Ilari Zubirik.

Bi atal nagusi ditu lanak, lehenean historia laburra egiten da ordenadorean erabilpenaz irakaskuntzan, adimen artifiziala, eta etorkizunerako aurrakuspenak azaltzen dira, besteak beste. Bigarren atalean Ikas-Txip proiektuaren sorrera eta ezaugarri nagusiak ematen dira ezagutzera.



Gai honetan interesatuta daudenentzat artikulua interesgarria. Ikas-Txip urte bukaeran plazaratu nahi da.

Liburu berriak

Calasso, Roberto: Las bodas de Cadmo y Harmonía (narrazioa).

Navokob, Vladimir: La defensa (nobela).

Arnaud, Georges: El salario del miedo (nobela).

Vittorini, Elio: El simplón guña el ojo al Frejus (nobela).

Bowles, Paul: La casa de la araña (nobela).

Millas, Juan José: volver a casa (nobela).

A L L E R D E D A N Z A

IENDO

DANTZA

lendo

Jazza eta dantza garaikidea da Traspasos talde gazteiztarrek Amaia antzokian taularatu duena. Iendo izenburua duen lan honen gaia nahiko xumea da: "Etxeko kontuek beti kalean amaitzen dute". Esaldi horretatik abiatuta, eta dantzaren hizkuntzaz baliatuz, elkar ezagutu, maite, elkartu, banandu eta haserretzen diren lagun batzuen istorioa kontatzen da, eta horretarako bizitzako hainbat momentu eta irudi aukeratu dituzte.

Elkar ezagutzea, bikoteak egitea, jai izango dira ikusizunaren lehen atalaren haria. Amaieran protagonismoak eragindako haserrealdiak erakutsiko dituzte, eta borrokan amaituko gertaera guztia. Plaza de Mayo deituko amen irudiak erabiliaz, abstrakzioa egiten dute Traspasos taldekoek, desagertu eta hildakoen argazkiak paparrean dituztela heriotza baino haragoko itxaropena azaltzen dituzte. Totemak, hildakoak, guztiak dantzan agertuko dira, hitak eta biziak ez bereizterainoko nahaspilan.

Espinosa, Miguel: La fea burguesía (nobela).

Mendiguren, Iñaki: Haltzak badu bihotzik. (1989ko Café Iruña Nobela Labor Saria).

Sastre, Alfonso: El camara da oscuro. Tierra roja (antzerkia).

Gala, Antonio: El manuscrito carmesí. (1990eko Planeta Saria).

Oates, Joyce Carol: Del boxeo (saioa).

Jimenez, Edorta: Atoiuñtzia (ipuinak).

Sastre, Pablo: Kristalezko bularrak (ipuinak).

Musika

• Asteburu honetan grabatuko dute Hertzainak taldekoek euren hurrengo diskoa, Bergarako Txibisto dantzalekuan.



Ostiral eta larunbateko kontzertuetan egingo da grabaketa jendearean gaueko 11etan, eta bideoa ere grabatuko da. Sarrerak Ariznoa eta Arrano tabernetan 700 ptanurrez erositako.

Ikastaroak

• Fedean sakontze eta helzte kurtoa

Kristau fedea eta funtsezko baloreen inguruan, ikastaroa antolatu da San Juan bataiatzailearen parrokiaren Jose Mari Astigarraga parrokoaren eskutik. Ikastaroa guraso, ume eta gazteekin lanean ari diren monitorea eta katekista, konfirmatua nahi duten 20 urtetik gorako gazteei zuzendurik dago. Astearen ordu 1.erdiko saioetan, 42 orduko iraupena izango du guttira eta Abadetxeko Katekesi aretoan izango dira. Hasiera urtarrilaren 21ean emango zaio, gaueko taldeari, 9etan, eta arratsaldekoari berriz 22 asteartean, arratsaldeko 3.30etan.

• Sexualitatea

Famili eta Gizarte-Heziketarako zentruak, Gazteria Batzordearen laguntzaz, sexualitateari buruzko ikastaro bati emango dio hasiera, Astelehenero, arratsaldeko 6.30etan M. Karmen Zubillaga psikologo-sexologoaren eskutik eta Santa Teresa kaleko 12an dagoen egoitzan martxoaren 25a bitartean. Matrikula 500 pta. kostako da.

• Jubilatuak

Hirugarren adinaren animazio programaren barnean, urtarrilaren 21ean hasita, sukaldaritzari buruzko ikastaroa emango du M. Tere Altuna sukaldariak, astelehenetan arratsaldeko 3.30etan. Jubilatu guztiak doan izango dute parte hartzea, eta Elkarteetako Juntetan egin behar dute izenematea.

“ “ Sekula zalantzaren bat egon bada, gero eta argiago dago Elkorro eta konstruktoreekin hitz egitera joan diren gainerako jaunak ETArek mezulaiak direla”.

(Eli Galdos Oñatiko Alkateak SER irratiko Hoy por Hoy programan)

“ “ Kultur ekipamenduen proiektuak Monterron go jauregiaren berriztapena erakarri zuen, Monumendu Historiko-Artistiko izendatuarena. XVII. mende-ko estilo barrokodun jauregi hori, oin aglomeratukoa, errege-erreginen bizileku izan da. Helduen eta umeen liburutegia ditu, guztira 10.000 liburu. Hemeroteka, erakusketa gela eta ikusnetzuteko zein hitzaldietarako aretoak ere baditu. Monterron barruan daude, bestalde, Garibai museoa eta Museo Etnografikoa ere”.

(El Diario Vasco egunkarian)


“ “ LKAren funtsezko lana, honako hau izango da: oro har, Euskal Herriaren eta bereziki kooperatibismoaren eta Arrasate Kooperatiba-Taldearen gizarte eta ekonomi-suztapenari laguntza ematea, alegia.

AKTren antolaketa-egituraren baitan LKA sartzeak esan nahi du, alde batetik Taldearen esparruaren baitan sortzen diren enpresa eta gizarte-ekimen teknikoki bideragarrientzako laguntza-modalitateak mantenduko direla.

(...) Gainean ditugun desafio berriek, irudimen, tiauako enpresaren eta profesionaltasun dōsi berriak eskatuko dizkigute, EEEK bi alorretan jokatu duen finantz merkatu handi baten sorketa bultzatuko duelako”

(Iñaki Gorroñok TU-Lankide aldizkarian)

Goardiako farmaziekin, zergatik egin da aldaketa?



Lehenik eta behin, farmazia zerbitzuen eskualdetzea Euskadi osoan egi-ten ari den gauza dela esan behar, ez dela Arrasate eta Bergarako botikariok asmatu dugun gauza. Horren adierazgarri izan daiteke esatea, Bilbo eta Donostian gauz bakarrik goardiako farmazia bat egoten dela. Zergatik eskualdetze hori? Gaur egun, ospit-ala dagoen herrietan, larrialdietako farmazia zerbitzuak zentzurik ez duelako. Ospitalean dagoen botikina ondo hornituta egoten da eta botikin horrek, farmaziak betetzen duen funtzio bera betetzen du. Ospitalean larrialdietarako zerbitzua badago, medikua badago, eta zerbitzu horretan ondo hornitutako botikina badago, goardiako farmaziaren zerbitzuak ez dauka zentzurik, sarritan zerbitzurik ere ez delako eskaintzen.

Goardiako farmazien zerbitzuan egon den aldaketak, jendearen ardura piztu du, alde batetik jendeak uste delako zerbitzua txartu egingo dela, eta bestetik jendeak ez duelako behar bezala ezagutzen zerbitzua bera, esaterako urtarilaren lehen hamabost egunetan bost pertsona izan dira Arrasatetik Bergarara joan direnak gaueko hamarretatik aurrera. Argi utzi behar den gauza zera da: eskualdetu dugun zerbitzua gaueko hamarretatik aurrekoa da, egunez herrian bertan funtzionatzen bait du. Jendeak uste du aste-buruetan goardiako farmazia zerbitzurik ez dagoela, eta hori ez da horrela, egunez, beti bezala dago eta.

Alberto Azkoaga,
Arrasateko botikarioen ordezkaria.

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

Lore Iurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Aretxabaleta

Leniz Lanbide Ikastegiak, ekintza ugari antolatu ditu datozen egunetarako. Literatur lehiaketa, Pariserako bidaia, eta Gasteizerako bidaiak izango dira Leniz Lanbide Ikastegiak burutuko dituen ekintzetariko batzuk. Pariseko bidaiaren barruan, Lafayette museora eta Pariseko zientzi museoa bisitatzeko asmoa dago; Gasteizeko bidaian ere, bisita gehiago egingo dira, SER emisora, arma museora, natur-zientzi museora...

Orain irratitailerra bezala, Leniz Lanbide Ikastegian antzerki tailerrarekin hasteko asmoa dute. Tailer horren arduraduna "Quichu" izango da, "Star Wais" taldeko partaide izandakoa. Antzerki tailerrean parte hartu nahi duten guztientzat izango da tokia, eta dohainik gainera. Ikastaroa bukatzean, ikasle izandakoak lanen bat antzetzuko dute.

Esandakoaz gain, Leniz Lanbide Ikastegiari anagrama egiteko lehiaketarako deialdia egiteko asmoa ere badago.



Oñati

1989rekin konparatuz gero, langabetu kopuruan igokada nabaria eman da Oñatin. Izan ere, aurreko urtean, INEM-eko datuetan behintzat, 574 ziren langabezi egoeran zeuden oñatiarrak, eta 1990. urtean kopuru hori 655era iritsi zen. Portzentaietan emanez gero, esan daiteke oñatiarren %15a, gutxi gorabehera, langabezian dagoela. 655 langabetu horietatik, 397 emakumezkoak dira eta gainontzeko 258ak gizonezkoak. Adinari begiratuaz gero, 455 langabetuk 30 urte baino gutxiago daukate, eta horietatik 283 emakumezkoak dira.

Adin eta sexu kontuak alde batera utzi eta lan sektoreei begiratuaz, industrigintzan langabetu kopurua handitu egin dela ikusten da, seguraski aurreko urtean aldibaterako kontratazioak nagusitu egin zirelako. Langabezi kontuez gain, biztanlegoari buruzko datuak ere badira eta horien arabera, Oñatin 1990. urtean aurrekoan baino 29 pertsona gutxiago zeuden.

Bergara

Jai giroa izango dute San Anton auzokoek asteburu guztian zehar, larunbat eguerditik aurrera. Eguerdian, txikiteoa egingo da eta arratsaldeko 4etatik aurrera tute eta mus txapelketa Zubiberri sagardotegian. Iluntze aldera, txikiteo eta sari banaketaren ondoren, auzo afaria egingo da sagardotegian. Igandean, 8etan diana, 9.30etan auzoko anaidiaren bilera, 11etan meza eta ondoren salda eta txorizoa doazen guztientzat, erromeria eta euskal kirol erakustaldia ikus ahal izango direlarik. 12etan XI. nazioarteko krosa eta 12.30etan berriz herri kirol saioa. Ordubatean txerri harrapaketa, kaskara jokia, soka-tira eta abarri emango zaie hasiera. Jaiak bukatzeko, arratsaldeko 5etan traka erreketak iragartzen da.

Jaiaz gain, esan behar San Anton deunaren basilizan berrikuntza ugari egin direla. Larunbat eta igandean irekita egongo da jendeak basiliza berritua ikusteko aukera izan dezan.

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Leintz Udal-Euskaltegiak 120 ordutako ALFABETATZE ikastaroa antolatu duela jakin arazten dizu.

- **Ikastaroaren iraupena: otsailetik ekainera bitartean.**
- **Klase egunak: astelehena, martizena, eguaztena, eguena (barikua jai)**
- **Klase orduak: egunean 2 klase ordu.**
- **Matrikula kostua: 6.000 pta.**

INFORMAZIOA

Durana 11, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 21 68

SANIDES

Parasitoel aurre egiteko
Intsektu narraztiak akabatzeko,
arratoiak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28

Ikasbide-Otalora

Arrasate Kooperatiba taldearen ikasketa zentrua orain arte Ikasbide izenez ezagutzen genuen; baina egoitza Aretxabaletako Azatza auzoko Otalora jauregian duenez, eta herritarrek aintzinatik ezagutzen zuten izen bera erabiltzearen, *Otalora* esango diote aurrerantzean, eta poliki-poliki Ikasbide deitura alboratuaz joan.

Parrokiako oharra

San Juan Bataiatzailearen Parrokiako Gabon Zorion agurrak eta talde ekonomikoaren gutuna zabaltzerakoan hutsegiteak izan dira, bertatik aditzera eman digutenez. Parrokiatik, barkamenak eskatzen dituzte bertako dirukontuen berri ematen zuen txostena etxe askotara iritsi ez delako eta horrekin batera jakin arazten material horiek elizarako sarrerako ate ondoan izango direla, interesik duenak har ditzan.

Monjei agurra

Arrasateko Iturbide egoitzaren zuzendaritza eta lanetan ari izan diren lekaiame Mertzedariei agurra egin zaie joan den asteburuan. Merzedariak joan den mendean etorri ziren Arrasateko Ospitale Zaharrera, herriko zaharrez eta gaisoiez arduratzera, eta geroztik Iturbide egoitzaren ardura ere euren gain izan da. Azpikontratazioa erabiliaz, Auzo Lagun enpresa arduratuko da lan hori erresidentzian burutzeaz.


Gazteen bilera

Udaleko Gazte-zerbitzuak deituta, bilera izango da Gazteen Egunean esku hartu zuten herriko gazte eta kultur taldeentzat. Bilera horretan honako puntuok aztertuko dira: gazteen egunen balorazioa eta hurrengo urterako egitaraua prestatzea. Ostiralean, hilak 18, arratsaldeko 6etan izango da bilera, Udaletxeko Pleno aretoan.

Txandaka

HAUR LITERATURA

Gai honi heltzeko Gunean, berehala konturatzen gara heltzeko moduko hainbat ikuspuntu daudela, gainetik begiratuta:



Aitor Arana (*)

1.-Sorkuntza. Hitzak berak adierazten duen bezala, guk geuk geure haur eta gaztetxoentzat literatura alorrean sortzen duguna hartuko luke lehen puntu honek. Ezin dugu inola ere esan oso alor emankorra denik, bereak astiro-astiro ematen dituen arren. Batipat fantasia, lilura eta ametsen erreinuan murgiltzen gaituzten berauek, abentura eta misterioa alde batera utzi gabe. Hori gaztetxoei dagokienez eta haurrei gagozkiela berriz, nabarmena ingurugunea eta mundua ezagutzera emateko nahia eta joera. Ezin komikigintza alde batera utzi, "arte literatura" edo esan nahi bagenio ere.

2.-Itzulpengintza. Alor emankor bezain aberatsa dugu berau, haur eta gaztetxoen irudimena edozein lurralde nahiz egoeratarara eraman dezakeena. Haur literatur atzerriarra sartu beharra dakar beronek eta gaztetxoarentzako aukerak zabaltea, beste herrialde batzutan modan

dagoen literatur tankera ("izan zeu pertsonaia" adibidez) geure artera geure hizkuntzan ekarritz. Klasiko asko eta asko geure haur eta gaztetxoen eskuetan daude jadanik era egokian itzulita eta gero eta maisutasun -eta aldi berean erraztasun- handiagoz.

3.-Agerpena. Sail honetan sartu beharko genituzke beharbada, zahartzarora iritsita ere, gogoan izaten ditugun "txikitako geure ipuinak". Orrialde handitan testu laburra -edo ez hain laburra- daukaten kolore aniztuneko ipuin irudi handidenez ari naiz hain zuzen ere. Edota ertzak irudien arauera moztuta agertzen dituztenak. Honelako haur literatura, bai sortua eta bai itzulia izan daiteke eta, zeresanik ez, koloreen diztirak harrapatuta bereganatzen du haurra.

Bukatzeko esan, haur literatura etengabe haziz doan mundua dugula eta, salbuespenak salbuespen, mundu osoa jartzen ari garela haurraren nahiz gaztetxoaren eskura.

(*) *Idazlea eta Esperantozalea*

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA -k
zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Salmentak amaitutakoan ekiten diete protestei

Golkoko gerraren aurka

Gerraren Aurkako Euskal Batzordea aurkeztu Arrasaten

Golko Pertsiarreko gerra hasi berria dela, aurkako jarrera eta protesta ekin-tza ugari burutu da aste honetan zehar gure herrian ere. Golkoko Gerraren Aurkako Euskal Batzordea aurkeztu zen astelehen iluntzeko 7etan Monterronen, eta nazioarteko arazo horretan kezkatu-rik egon eta aurkako jarrera azaldu eta mobilizazioetan hasteko asmoa azal-duaz. Batzordeak zabala eta joera poli-tiko guztietako jendearentzat izan nahi duela azpimarratu nahi izan dute eta kaleratutako manifestuan ere alderdi eta era guztietako taldeez gain, lanbide ugaritako partikularrak direlarik sina-tzaile.

Batzordearen helburua gerraren aurka joatea da, eta orokorrean kon-fliktoaren benetako arrazoiak arrasa-tearren artean eztabaidatu eta herrita-rreri jakin araztea. Taldekideek, bestal-de, Golkoan eta Ertekialdean gertatzen

ari den guztian amerikarrek eta gizarte kapitalistak orokorrean dituzten intere-sen muina petrolioia dela adierazi ondo-ren, gerrari ezetza eman eta armada espainiar eta frantsesaren erretirada exijitu zuten. Horrekin batera, gerrara joan nahi ez duten gazte euskaldunei beren laguntasuna adierazi diete.

Aste honetako mobilizazioen ba-rruan, itxialdia burutu zuten astelehen gauean, eta herriko ikastetxe guztietan deitutako greba deialdiak ere erantzun zabala izan zuen. Era berean, astearte eguerdiz eta iluntzeko manifestaldietan jende multzoa bildu zen.

Hasiera batean arazoari irtenbide negoziatua bilatzen bazen ere, astearte-ko prentsurreako-bileran esku hartu zutenen aldetik gatazkak eztanda egi-tean zer jarrera eta mobilizazio hartuko zuten aurrerago eztabaidatzeko geratu zen.

Usteak uste

Hemendik aurrera gaisorik Hzaudelako edo bapatean horrela suertatzen zaizulako gauez botikara joan beharrean zaudenean, egutegia-ri begiratu beharko diozu. Hilaren lehen hamabost egunen barruan egonez gero, zorte txarra, zeren Mondragoeko farmazia guztiak -zazpi- itxita egongo dira eta.

Lehenengo eta behin automobila eduki beharko duzu, ordu horietan autobusik ez dago eta. Gero ikasi Bergarako bost farmaziak non dauden. Ordu horietan ez duzu jende larregirik topatuko zuri hori esateko prest. Uniko, Bergarako botikariek gauez Ertzaintzak lagunduta doazenak bakarrik atentitzen dituztenez, Ertzaindegira joan eta bateren bat zurekin joateko moduan badago, hori aurreratuko duzu.

Kasualidadez oso gaizki baldin bazaude zu zeu joateko, egin ezazu otoi zure partez joango den eskuza-balen bat aurkitzeko.

Horixe izan da urte berriarekin batera, Arrasate eta Bergarako botikari jaun /andere txit prestuek herri hauetako 41.078 bizilagunei, ekarri diguten oparia.

Errespeto guztiekin, halako erregalori ez diot logika handirik ikusten, ez bada botikariaren euren erosotasuna, kontsumitzaileen lepotik beti ere. Mondragoetarrok ez dugu direnak eta ez direnak zertan gainditu, ezta Bergarakoek ere, zerbitzu publikoa den zerbaite eskuratu ahal izateko, zerbitzu hori beste moduren batean herrian bertan ziurtatzen ez den bitartean behintzat.

Joxe Aranzabal



Mila hitz baino
argiagoa da
irudi bat




GUBI ILEAPAINDEGIA

Otalora 5, 1. A, Tfnoa: 79 12 74



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Urriburu 24,
Tfnoa: 79 70 36
ARRASATE



Asteazkenean ireki eta berehala ekin zitzaizen klaseei.

Ingurugiro eskola zabalik

Ikastetxeetako 6. mailak pasako dira bertatik

Joan den asteazkenean, Udalako Ingurugiro Eskolak lehen aldiz atek zabaldu zituen, bertara joaten diren haurrei ingurugiroaren ezagupen zabal emateko helburuaz. Ezagupen zabal horretan, ingurugiroaren funtzionamendua, ingurugiroari buruzko kontzeptuak, gizakiaren ihardunak ingurugiroan duen eragina...Eta antzerako gaiak aztertuko dira, beti ere Arrasateri lotuta. Gainera, umeei, ingurugiroak dituen arazoak azaldu eta hobetzeko pertsonon parte hartzea ezinbestekoa

dela irakasteko ahalegina egingo da.

Ingurugiro eskola ireki aurretik, proiektu honen arduradunek, Arrasateko ikastetxeetako zuzendari eta naturaroko irakasleekin harremanak izan dituzte, eskolak hartuko zuen norabidea zehazteko. Oraingoan, maiatzera bitartean, Arrasateko ikastetxeetako 6. mailako eskolakumeak izango dira Udalako eskolara joango direnak, baina posible litzateke datorren ikasturterako Deba Garaian dauden ikastetxeek Udalara joateko aukera izatea.

Goardiako Botikak

Arrasate eta Bergarako Udalek Birjarpren errekurtsio bana jarri dute Gipuzkoako Botikarien eskolaren aurrean, bi herrietako goardiako farmazia zerbitzua eskualdetzeko hartutako erabakiaren aurrean. Bere esku den guztia egiteko prest dela adierazi du Udalak, berriz ere lehengo zerbitzua ezar dadin.

Isurketak

Santa Agedako Psikiatrikoko San Juan de Diosen Anaidiak Ospitale hartatik errekaratutako egindako isurketengatik egindako salaketaren aurka jarritako errekurtsioa, atzera bota du Udalak. Bitartean, lege hausketan hauen aurka zigorgogoragoak ezarri ahal izateko bide legalak aztertzen ari da Arrasateko Udala.


JAIOTZAK

Argoitia Ortega *Asier*, Urtarrilak 5.
Aranzeta Artola *Xabier*, 6an
Muelas Sampalo *Nerea*, 9an
Zabala Sanchez *Julen*, 9an
Etxaniz Llamas *Jon*, 10ean
Pozo Romero *Yerey*, 10ean
Garitagoitia Martitegi *Julen*, 11n
Merkader Satrustegi *Jon*, 13an
Gorrotxategi Ruiz *Enrike*, 12an
Gorrotxategi Ruiz *Jorge*, 12an

EZKONTZAK

Jose Jabier Amasene & Irune Ugalde, Urtarrilak 5, zibilez.
Jose Domingos Gomes & Maria Belen Aparicio, Urtarrilak 12, elizaz.
Jose Luis Diosdado & Helena Muñoz, Urtarrilak 15, elizaz.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea,
etab: **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA**
eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ




Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

1990



SASKI NASKI


Lehiaketa

O **OKENDO**
KIROLAK



Zatoz gurera  ikustera.
Banatzaile ofiziala

Jose Aranzabal
TB, HI-FI, BIDEOKAMARAK



ASTE HONETAKO IRABAZLEAK
Ainhoa Giraldo
Jon Gonzalez
Iker Okaranza

Josu Bartolome
Jabi Guardo
Lorea Astondoa

J. URIARTE

T A A
M PA A
Y PEL O




Non ireki dute Ingurugiro Eskola?

ASTE HONETAKO GAZTEREA

SASKI NASKI ZOZKETAKO opari handiaren zozketa, urtarrilaren 30ean egingo da.

ERANTZUNA:

Izena: Helbidea: Tfnoa:



Hendikak aurrera zabaorrak epelera

Epeleko zabortegia irailerako

Azkenik Moyua enpresaren proiektua onartu zen

Gasteizko gobernuak, Epelen hondakin geldoak jasoko dituen zabortegia eraikiko duena Moyua enpresa izango dela erabaki ondoren, laster emango zaie hasiera eraikitze lanei. Moyua enpresak aurkeztu zuen proiektuak, 159 milioitako aurrekontua zuen eta printzipioz zortzi hilabete barru, iraila alderako gutxi gorabehera, eraikitze lanek bukatuta behar dute egon.

Moyua enpresak eraikiko duen zabortegiak, 191 metro kubiko hondakin jasotzeko gaitasuna izango du, eta adituek diotenez 3 edo 4 urtetarako balioa

izan dezake. Zabortegia bete ahala, ondakin geldoak botatzeko lekua handituz joango da, 1.817 metro kubikoko gaitasuna hartu arte. Epeleko zabortegiak bailaran sortzen diren hondakin solidoak jasoko ditu, kutsatzen ez duten eta toxikoak ez diren hondakinak, hain zuzen.

Epeleko zabortegia eraikitzeko arrazoi nagusia, legetik kanpo dauden 36 zabortegiei irtenbidea ematea litzateke. Hori bai, kutsatzen ez duten hondakinak bakarrik bota ahal izango dira, zeren kutsatzen dutenen irtenbidea...

Manifestazioa

Arrasateko euskal preso, deportatu eta errefuxiatuen senitartekoek autobusak antolatu dituzte urtarrilaren 19an Bilbon izango den manifestaldira joateko. Giza eskubideen defentsa edozein ideologiaren gainetik dagoela esanez, arrasatear guztiei egiten diete ekitaldirako deia. Arratsaldeko 3etan Arbola-petatik irtengo dute autobusek. Izene-matea Hire liburudendan eta Iratin.

Larreako proiektua

Larreko etxebizitzetan izena emateko epea bezala, lanak burutzeko proposamenena ere amaitua da. Ardura hori nori emango zaion erabakitzeko dagoen artean, etxeen banaketa egiteko erizpideak ere ez daude garbi Udalean. Bide ezberdinen artean, zozketa hutsa, familiakideen arabera baremoa, baldintza gehiago sartu eta hautagai multzoa murriztea eta familia eredu bakoitzarentzako kopuru jakina izendatzea dira aztertu beharreko aukerak.

Saria

Arrasate Kooperatiba Taldeak eskuratu du aurtengo Sabino Arana sarietan Ekonomia arloari dagokiona. Erabakia hartzean Kooperatiba taldeak bere sorreratik izan dituen solidaritate izpiritua, superazio nahia eta aurrerapen teknologikorako gogoaz azpimarratu zituzten Fundaziokoek. Sari banaketa urtarrilaren 27an izango da, Bilboko Elkarte Filarmonikoan.

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

LOREA
Oinetakoak
eta poltsak
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAI 3,
Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE



Datorren ikasturterako eskola berria egin nahi da.

Umezaintzak eskola berria

Datorren ikasturterako San Josepen

Umezaintzak eskola berria eraikiko du datorren ikasturterako, San Josepe auzoan, orain duenaren alboan. Eskola berria eraikitzeko, ehun milioiko aurrekontuaz osotara, Udalak agindu dio dagoeneko bere dirulaguntza izango duela, aurrekontuak onartu bitartean zenbatekoa zehaztuko ez den arren.

Umezaintzakoak aspalditik ari ziren orain Arrasaten dituzten eskola ezberdinak elkarren ondoan jartzeko asmotan, orain Altamiran bait dago umezaintza eta San Josepen eskolaurrea Guzti horiek arazoak sortzen dizkie funtzionamendua antolatzerakoan, eta eraiki be-

rriari jantokia bezalako zerbitzuak batoratzea lortuko litzateke.

Obrei ekiteko behar den dirulaguntza lortzeko oztopoak izango dira, Logse legearen atal hori Eusko Jaurlaritzan oraindik garatu barik dagoela eta. Udalarenaz gain beste diru iturririk ez da izango. Udalaren laguntzarik ezean, gurasoen kuotak asko igoko lirateke, eta Udaleko Gobernu Batzordeak eskolaren arazoa bere gain ez hartzea erabakia duen arren, ahalik eta gehien laguntzeko borondatea azaldu du.

Aurtengo ikasturtean 190 ume dago matrikulatuta, 135 D eredian eta 55 Bn.

Lanbide hastapena

Deba Garairako, aurreko urteetan bezala, lau lanbide ikastaro antolatu dira Deba Garaiko Udal Ekartean. Arrasaten ebaketa eta josteari buruzkoa, Bergaran igeltsaritza eta arozgintza eta Oñatin berriz sukaldaritza ikastaroa. Ikasketa arautuetatik kanpo jarduteko aukera eskaintzen zaie 16-18 urte bitarteko gazteei. Ikastaroak urtebeteko iraupena izango du eta 20 tailer orduz gain, beste 10 ordu denbora libreari buruzko ikasgaiz osatuan izango dira. Ikastaroetan parte hartzeko epea otsailaren 3an amaituko da, eta Deba Garaiko Udal Elkartearen egoitzara nahiz hastapen tailerrera edo Arrasateko Udaletxera dei egin daiteke.

Kilometroak Bergaran

Gipuzkoako ikastolek euskararen alde urtero antolatzen duten jaia, Kilometroak, Bergaran izango da aurtengoan. Urriaren 6an milaka euskaldun hartuko dituen zirkuitua eta ingurko antolakizun guztiak prestatzen hasia da dagoeneko Aranzadi ikastola. Ibilbidea San Antonio inguruetan izango da.

Errifa

San Viator Ikastolaren Gabonetako zozketan, gabon otarra eta beste bi saritan, honako zenbaki hauek atera dira: 0092, 479 eta 2.469. Saria jasotzeko epea 15 eguneko izango da, eta zenbaki sarituen jabeek Loramendi Kirolaketik pasatu behar dute jasotzera.

**Rover 214 eta 216-16
balbularen aurkezpena
Arrasaten**

Apirilaren 18an

AUTO SAN ANDRES TAILERREAN


Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22



ROVER



Urteberri egunez ohitura da menditik joanetorria egitea. Arrasatear asko Udalaitzen izan zen urteari hasiera emateko. Zenbaitek ohetik jaikita ekingo zion gorako bideari, baina beste asko parrandatik zuzenean ere joango zen, noski. Modu polita urtea hasteko!



Vitorino Egiara Jausorok urte asko egin ditu txofertzan. 42 urtez izan zen Zerrajerako zuzendariaren gidaria, 82an erretiratu arte. Harro asko aitortzen du Vitorinok bere bizi guztian zehar ez duela sekula istripurik izan, eta ez diotela egundo isunik ipini. Meritu hori errekonozitu diote azkenean, eta Maria Kristina hotelean egindako jaialdi baten barruan Gidari Eredugarri izendatu zuten, Urrezko Intsignia ere emanaz Mutua aseguru etxearekin egindako 25 urteengatik. Horrezaz gain, dohainik izango du urtebetez autoaren aseguruua. Merezki du gizonak zerbait, lau milioi kilometro autoz egin ondoren!

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



txutxumutxuak

Izen
PROPIOAK

Ezagunak dira dagoeneko Santamas argazki lehiaketako irabazleen izenak, gure argazkian ageri direnak: ezkerretik hasita **Joxe Otadui**k lehen saria irabazi zuen, **Jabier Hidalgo**k bigarren saria. Olentzeroren argazkirik onenaren sariaren irabazlea **Roberto Mendi** izan zen eta **Migel Angel Arenazarena** izan zen multzorik onena, epaimahaiaren eritziz. Lehiaketara 28 lagun aurkeztu ziren, gutzira 120 lan eta erakusketaren inauguraziora jende asko hurbildu zen.


● **ESPE SAN VICENTE**, 24, **MIRIAM IRIA**, 23, eta **ZURIÑE EZPELETÁ**, 22, arrasatearrak Udaleko Drogomenkotasunaren prebentzio zentruak atera duen azterketa beka eskuratu duen taldeko partaide dira. Miriam eta Espek Psikologia ikasketak egin zituzten, eta Zuriñe berriz gizarte laguntzailea da.

● **TOMAS ZUBIZARRETA**, 28, albisturtarra izendatu dute Arrasateko Udaleko arkitektu berri. Urtebeterako kontratua sinatu du lanpostua behin betirako oposaketa bidez irten arte. Tomasek Iruñeko Unibertsitatean ikasi zuen arkitektura, eta praktikaldia estudio batean egin zuen.

● **VALENTIN MOÑUX**, 29, bergararra, Bergarako Orfeoiko presidente izendatu berri dute. Valentinek aparailari ikasketak egin zituen eta Antzuolako Udalean lan egiten du gaur egun. Kantuari dagokionez, aurretiaz Aritzeta abesbatzean ere egona da, eta betidanik musikaren munduan ibili izan da.



Guruzne Antxia atxabaltarra eta **Aitor Mendibil** debatarra Arantzazun ezkondu ziren urriaren 20an. Urtearen aldaketarekin atera dugu argazkia. Ezkon ondorengo bidaian, Tailandia aukeratu zuten. Zorionak, bada. ▶



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25


ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94



BONBOIAK



FRUITU LEHORRAK
Otalora 2, ARRASATE

Uherkape, konponbide aldapatsua

Lur mugimenduaren ondoren, jabetzaren inguruko auzia eta auzotarrak pasabide barik

Joan den urteko ekainean lur mugimenduak izan zirenetik, geratuta daude Uherkape inguruan etxebizitzak eta pilotalekua egiteko hasiak zituzten lanak. Udala eta Azatza kooperatibako etxe-jabeak dira auzibideetan sartutako bi aldeak, eta bigarrenak ez dute oraingoz adierazpenik egin nahi izan.

Mendiak behera egin zuen, eta gainean dagoen etxebizitza multzoak, Azatza etxea izenez ezagutzen denak, brintzak jasan zituen. Hilabete askoren ondoren, lurrei eutsiko dien murrua egiteko baimena eman dio epaileak Udalari. Azatzako jabeekin urrututako auzibidea horretan dago gaur egun.

Atzera begiratu

Ekainaren erdialdean nabaritu ziren lehen lur mugimenduak, Katzo eta Larragain baserriak bota eta etxebizitzak eta pilotalekua egiteko lurrek mugitzearen ekin ziotenean. Mendi magal horretan eraikitako etxe-

bizitza multzoa, *Azatza* deitua eta *Caja Laboraleko etxeak* izenez ere ezagunak direnak, brintzatu egin zen. Etxe horietara eta Altamira auzora doan bideak behera egin zuen mendiarekin batera, orduan esan zenez, bere garaian oinarri gutxiarekin egin edo egin beharreko analisi geoteknikoak behar bezala egin ez zirelako. Udalak geldiarazi egin zituen obrak, azterketak egin eta ahalik eta azkarren mendiari geratzeko jarri beharreko bide teknikoak martxan jartzeko.

Nondik nora jo behar zen jakiteko, Euroestudios izeneko enpresa donostiarri egin zioten kontsulta, gai hauetan aditueta bat, antza. Haien agindutakoari jarraituz, horma eraiki beharra zegoela erabaki zen, lur erauntsiari eutsiko bazi-tzaion. Irtenbidea horixe zela ziurtatzen zuten eta. Lehenengo Azatza kooperatibako etxeen barren-barrenean eraiki zuten horma bat, baina harrez gero tirabirak sortu dira Udala eta Azatza kooperatibakoen artean, be-



Orma horren gainetik bidea egin nahi du Udalak

herago egin beharreko hormari auzokoek ezetza ematen ziotela eta.

Erauntsiaren arrazoiak

Mendia behera etortzearen arrazoiak, argituak dira dagoeneko. Tek-

tzinaroan erreka hortik pasatzen zen. Gerora lurrez estaltzen joan da guzti hori, eta mendiaren osagai nagusia harkaitza bazen ere, ez inolaz ere harkaitz sendoa, deskonposatua baizik. Horren eraginez, eraikuntzarako beharrezkoa den segurtasun koefizientea, normalean 3tik gorakoa, 1,1 edo zen Uherkapen. Berez lur egonkaitza denari, ez dio mesederik egiten eraikuntzak, gutxi-asko pisua kontutan izatekoa da eta.

Auzibidea

Astebete da Bergarako Lehen Instantziako Epaitegiko epaileak Udalari *bataxes* izeneko murrua -elkarren artean lotutako hormigoizko daduz eraikia-egiteko lanekin jarraitzeko baimena eman ziola. Aurretiaz, Azatza kooperatibako bizilagunen elkarteak interdiktoa ezarri zion Udalak jasotako epailearen aurreko erabakiari, lanekin jarraitzeko zioenari. Auzitaratzai-

Etxeetan gertatutako kalteei nork erantzungo dien ere ikusteko dago oraindik

nikoen esanetan, baserriak bota eta eraikuntza lanetarako beheko lurak mugitzen hasi zirenean, gertatu zen, eta orain egiaztatu ahal izan denez, aro geologiko batzuetan gertatutakoa kontuan izan behar da. Gaurko zolutik 2 metrora errekarriak aurkitu dira, beraz, an-

leen ustez, besterik esaten bazen ere, haiek ez zirela eta kontsolidazio lanak.

Guzti horrekin batera, espediente ugari daude Udalean irekirik auzia dela eta: urbanistikoa, horma eraikitzeako aginduarena eta lurren zesioari buruzkoa. Izan ere, eztabaida dago Udala eta Azatza kooperatibaren artean, Altamira barreneko lur sail batzuen, Azatza etxeak eta gaur egun egiten ari diren hormaren artekoen jabetzaren inguruan. Lur hori herriari eman beharrekoa dela esaten dute Udalean, etxeak egin zireneko proiektuan ez ezik, plan partzial zaharrea eta Arau Subsidiarioetan ere hala ageri dela eta. Eskriturretan jabe direnek, Azatza kooperatibak, lur horien jabe direla eta ematekotan espropiazio bidea jarraituaz eta ordainduta izan beharko duela omen diote, bestalde.

Oinezkoentzat pasabidea egiteko, lur horretatik ikusten dute modua Udalean, etxearen barrenean eraikitako horma txikiaren gainetik, nahiz azpitik. Lurraren jabetzarekin dauden eztabaidak egonda, hortik ere ez dago irtenbiderik.

Eta bitartean ...

Bien bitartean, Altamira auzora igotzeko dagoen bidea, Jose Luis Iñarra Pasealekura daramana, itxita dago ibilgailuentzat, eta orain baita oinezkoentzat



Errepidea moztuta eta oinezkoentzako iraganbidea debekatuta egon arren, jendeak bertatik pasatzen segitzen du

ere. Bidearen azpikaldean dioxozko horma egiten duten artean, zati bat erorita eta pasabidea oholez itxita

dago, eta debekatuta dagoen arren, oinezkoak pasa egiten dira, hala ere kalera jaisteko biderik azkarrena bera de-

lako.

Mertzedarien ikastetxean gertatutako brintzak ere arazo honekin erlazionatu diren arren, etxe hori desprendimenduen marratik kanpo dago, eta hotz-bero arazoengatik, Ferixalekuko garajeen eraginez, nahiz gaizki egindako lotuneen eraginez izan omen daiteke, denboraren aldetik ere lehenago gertatu bait zen.

Arazoa konponbidean jartzeko, Udaleko Hirigintza arduradunen esanetan, horma lehenbailehen amaitzeak dauka lehentasuna, eta horren ondoren, probisionalki bada ere, oinezkoei pasabidea egitea, bien bitartean epaibide guztiarekin amaitzen saiatuaz.

Zer dio auzoak?

Pasabidea itxirik, autoz ez baina oinez, lehen bezala dabil jendea gora eta behera, arriskuak arrisku eta beharlekuak beharleku. Umeak eskolara, gurasoak haien bila, eta etxeak erostetetan. *"Urtebete daramagu autoz beste aldetik igotzen, eta orain oinezkoa ere kendu egin digute. Ez dakigu zer gertatzen den ere, eta Udalak zerbait egin behar luke. Orain Ferixaleku eskola kontratik bidea egitekotan direla entzun dugu..."*. *"Hau lotsagarria da, orain paso gabe utzi gaituzte oinezkoak, eta euriarekin eta, oso gaizki. Zerbait egin behar lukete"* dio mutil gazte batek. Kanpotarra izan arren, Altamiran bizi izaten dagoen andre batek ikaragarri erizten dio guzti horri, *"beste bideren bat egiterik ez al dago?"*.

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

Jazten

Biziko bagara jantzi beharra daukagulako

**EGIN
ZAITEZ
HARPIDEDUN!**

JAZTEN aldizkariaren harpidedun egin nahi dut 1991. urtearen amaiera arte.

IZEN-ABIZENAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____ TFNOA _____

BANKU EDO AURREZKI-KUTXA _____

KONTU -ZENBAKIA _____

ERRENBOLTSOZ _____

Lehen zenbakia bidaliko dizugu? Sinadura

Bai Ez



Parques y Jardines


PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA

LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR

LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburusak
- Merkatal Inprimakiak
- Bulegoko materiala




Tentsioa nagusi

Lehen fasea bukatzeko bi partidu falta direnez, talde askok etorkizuna ziurtatu barik

Urduritasuna nabaritzen da azkenaldian Zaldibarko futbito txapelketan, batez ere oraindik sailkatzeko aukera daukatenen artean, sailkatu direnak edo inolaz ere sailkatu ezin direnak lasai daudelako. Argazkian ere tentsioa nagusi, baloia nork harrapatu?



JMA



ILLARRAMENDI

Geure lantegiak ditugu

Iturriotz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE



LANTEK

Informatika teknikoa

Basabe poligonoa, C 1,
Tfnoa: 79 66 21
ARETXABALETA

JOMA

JOSE MARI GALLASTEGI Y CIA.

Gipuzkoa Etorb. 32,
Tfnoa: 79 16 55 ARRASATE



A taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Sumin Ugarte	13	11	0	2	71	28	22
Bizkorrak	13	11	0	2	55	31	22
Golfos Persicos	13	9	3	1	70	28	21
Zortzikin nahiko	13	9	1	3	63	35	19
Autovia patutia	13	9	1	3	49	39	19
Potrozorri	13	8	1	4	43	39	17
Mutikotes	13	6	0	7	40	37	12
Kakajauri	13	4	2	7	24	44	10
Bar Alcalde	13	4	1	8	39	73	9
Ezkinako ontzak	13	3	3	7	30	55	9
Yokese	13	3	3	7	25	45	9
Caf. Pto. Urraco	13	3	2	8	30	37	8
Bayern de Leniz	13	2	1	10	35	70	5
Ugarixoak	0	0	0	0	0	0	0
Total	182	82	18	82	574	574	182

B taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Zuloak	13	12	0	1	87	28	24
Arrasate Kiroiak	13	9	2	2	57	37	20
Los Heredia	13	8	2	3	75	35	18
Kriskibalda	13	8	2	3	57	33	18
Laso Arregi	13	8	2	3	55	40	18
Sokoa-600	13	7	2	4	42	45	16
Toki Eder	13	6	0	7	53	73	12
La ira de Odin	13	5	1	7	51	59	11
El Regreso	13	4	2	7	52	64	10
Okendo Kiroiak	13	4	1	7	45	55	9
Solano 90	13	4	1	8	45	60	9
Aizpun bila	13	4	1	7	37	57	9
Resakas	13	3	0	10	31	88	6
Gimnasio Saiea	0	0	0	0	0	0	0
Total	180	82	16	82	693	693	180

C taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Alperrak	13	12	1	0	94	33	25
Pepelus	13	11	0	2	58	33	22
Fosforos	13	10	0	3	80	57	20
Zelai	13	8	2	3	86	40	18
Diego Antonio	13	9	0	4	82	43	18
Artano	12	7	3	3	64	39	17
Bar Kajoi	13	7	2	4	64	47	16
Los motz	13	7	0	6	65	63	14
Kannabis boys	13	6	1	6	57	59	13
Sannan Hussein	13	6	0	7	44	50	12
Danok lagun	13	3	3	7	42	69	9
Bacilona	13	2	3	8	45	70	7
Steaua del grifo	12	3	1	9	29	84	7
Muru Barren	13	3	0	10	35	66	6
M.G.M.	13	1	2	10	23	102	4
Neptune	0	0	0	0	0	0	0
Total	208	95	18	95	868	868	208

D taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Argi ibili	13	13	0	0	132	34	26
Lorategi-Potroak	13	11	0	2	67	39	22
Adelaida	13	9	0	4	67	30	18
Artzanko's	13	7	2	4	56	31	16
Rayo Vatika-no	13	8	0	5	51	49	16
Balaie	13	8	0	5	47	43	16
Camerun's	13	7	1	5	84	46	15
La ban. de Pepe	13	6	2	5	51	52	14
Sisepuede	13	7	0	6	51	29	14
Babarias	13	5	3	5	39	47	13
Gau azkenak	13	6	0	7	37	34	12
Avinagraos	13	4	1	8	35	64	9
Gastaos	13	3	1	9	33	93	7
Inter de alimañas	13	2	0	11	29	81	4
B.B.V.	13	1	1	11	23	86	3
Sukumu-Aterpe	13	1	1	11	19	63	3
Total	208	98	12	98	821	821	208



OMU
ZERAMIKAK

KRISKIBALDA
TALDEAREN
LAGUNTZAILE

- Biltegia: Meatzerreka z/g, Tfnoa: 79 14 28
 - Erakusketa: Otalora 1, Etxabea, Tfnoa: 79 07 20
- ARRASATE**





Gol aukera ugari ikusten dira Zaldibarko frontoian, eta une horietan atezaina eta aurrelariaren artean sortzen den harremana berezia izaten da: batak ahalegin guztiak egiten gainera datorkiona gelditzearren, eta besteak ere ahalegin bera.

OPEL 
Hobeak esperientziaz

TALLERES OLA, S.A.
Erakusketa Arrasaten:
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86


Lorategi
Kafetegia

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

ALCANADRE
TABERNA



GURE LEKU

taberna

Zarugalde kalea, Tfnoa: 79 20 29

E maitzak

A taldea

Zortzikin nahiko 3	Eskinako ontzak 3
Bizkorak 6	Atutemelele 4
Yokese 4	Cañon Pto.Urraco 3
Mutikotes 4	Golfos Persicos 6
Potrosorri 5	Kakajauri 1
Ugarixoak 0	Autovia patutia 1
Bar Alcalde 3	Bayern de Leniz 2

B taldea

Laso Arregi 4	Arrasate Kirolak 4
Toki Eder 1	Sokoa 600 4
La ira de Odin 2	Solano 90 8
El regreso 1	Zuloak 3
Kriskibalda 1	Los Heredia 4
Okendo Kirolak 1	Gimnasio Saioa 0
Resacas 4	Aizpun bila 5

C taldea

Fosforos 5	Diego Antonio 8
Kannabis boys 8	Sanann Hussein 2
Zelai 16	Steaua del grifo 2
Danok Lagun 1	Alperrak 13
Pepelus 4	Bar Kajoi 2
Los motz 7	M.G.M. 3
Bacilona 1	Muru Barren 2
Artano 1	Neptuno 0

D taldea

Sisepuede 5	Avinagraos 3
Camerun' s 2	Lorategi potroak 4
Inter de alimañas 3	Argi ibili 11
Artzarko's 2	La Banda de Pepe 4
Gau azkenak 2	Gastao 3
Sukumurus- Aterpe 1	Adelaida 5
Balalaika 4	Babarias 1
B.B.V. 1	Rayo Vatika-no 7

**ASTERO
WALKMAN
BATEN
ZOKKETA**

TRIKITIK eta KAJOI TABERNAK ematen dituzten sariak irabazteko, moztu ezazu iragarki hau, zure izen-deiturak idatzi eta Trikiti dendara eraman. ASTERO WALKMAN ZORAGARRI BATEN ZOKKETA!

Trikiti

SOINUA • BIDEA • T.Ba • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

3655

IZEN DEITURAK TFNOA:



Txutak

SAILKAPENEI BEGIRATUZ

Zaldibarko futbito txapelketaren lehen fasea bukatzeaz dago. Dagoeneko, A eta B taldeetako partiduak bukatu dira eta sailkatu diren berri aurreko orrialdean duzue. C eta D taldeetako ekipoei berriz, bi partidu besterik ez zaie gelditzen, eta oraingoz sailkapena ziurtatuz daukaten ekipoak bakarrik lau dira: *Alperrak*, *Pepelus*, *Argi Ibili*, eta *Lorategi-Potroak* taldeak hain zuzen. Aipatutako lau horiei beste zortzi gaine-

ratu behar zaizkie, baina matematikoki aukera daukaten taldeak hamasei direla kontutan hartzen bada, ez da gehiegi esatea oraindik gauza asko daudela erabakitzeaz.

Asteburu honetan jokatuko den ihardunaldiari begira, sailkatzeko borrokan, *Los Motz-Bar Kajoi*, *Fosforos-Artano*, *Kannabis Boys-Diego Antonio*, *Balake-Adelaida*, eta *Rayo Vatikano-Babarias* taldeen arteko neurketak dira intergarrienak.

Sailkapeneko gorabeherak alde batera utzirik, esan behar *Neptuno* ekipoa D taldetik kanporatua izan dela joan den asteburuko partidura ez agertzearren.

Beñardo Kortabarria

DATORREN ASTEBURUAN

C taldea

Fosforos	Artano
Kannabis boys	Diego Antonio
Zelai	Sanann Hussein
Danok Lagun	Steaua del grifo
Pepelus	Alperrak
Los motz	Bar Kajoi
Bacilona	M.G.M.
Artano	Muru barren

D taldea

Sisepuede	B.B.V.
Camerun's	Avinagraos
Inter de alimañas	Lorategi-Potroak
Artzanko's	Argi ibili
Gau azkenak	La banda de Pepe
Sukumurus- Aterpe	Gastaos
Balake	Adelaida
Rayo Vatika-no	Babarias

OHARRA

A eta B taldeetako ekipoek lehen faseari amaiera eman badiote ere, ezin da aurreratu gero jokatuko dituzten partiduak, beste bi taldeetan zeintzuk sailkatzen diren jakin arte. Esan, hurrengo fasea 24 ekipok jokatuko dutela, 3 taldetan banaturik.



AURORA-POLAR

Aseguruak

Mikel Lasa agentzia

Zerkaosteta 15 etxabehea, Tfnoa: 77 00 94, Faxa: 77 10 74 ARRASATE

TELLERIA

autoeskola

- Mitarte 18, Tfnoa: 79 53 51 ARETXABALETA
- Juan Carlos Gerra 2, Tfnoa: 79 18 39 ARRASATE



Julian Sagasta

Gaztetatik Erroman apaiz eta organujole

Julian Sagasta, duela 77 urte Arrasaten jaio zen. Umea besterik ez zela, Oñatiko Agustinoetara joan zen, musika eta erlijio ikasketak egitera. Hamazortzi urterekin Erromara joan zen. Orduetik han dabil, eta noiz behinka Arrasatera bueltatzen da. Joan diren Gabonetan hemen izan da.

— Italian horrenbeste urte pasatu ondoren, Giuliano edo Julian?

— Beno, Italian Giuliano deitzen didate, baina ni Julian edo bestela *Olatxo* naiz. Nire aita Olatxo baserrikoa zen, eta kalera bizitzera etorri zenean horrela deitzen zioten, neroni ere bai. Halere, esatekoa da, Erroman laster konturatzen direla urrutira ikusten den hura ni naizen edo ez. Beti txapelaz ibiltzen naizenez, laster esaten dute, “begira, han dator Sagasta”.

— Zertara Italiara?

— Hasierako ikasketak hemen egin nituen Gero Agustinoetara joan nintzen, Oñatira, han umanismo eta solfeo ikastaroak egin nituelarik. Hamar urterekin pianoa jotzen nuen eta hamaikarekin organoa. Ikasketa horiek, batez ere musikakoak, hobetu nahi nituen eta gelditzen zitzaizkidan irtenbide bakarra

kanpora ateratzea zen. Horrela, 18 urte nituela Erromara joan nintzen.

— Oso gazte ekin zenien musika ikasketei, ez?

— Ikasketekin, zegokien garaian hasi nintzen. Oso gazterik etorri zitzaizkidan zaletasuna izan zen, lau urte nituenean ordu asko egoten nintzen Arrasateko bandaren entseiuak entzuten eta. Nire musikarako zaletasuna ez dakit nondik zetorren, familiar inor ez bait zen musikoa.

— Zaletasunak alde batera utzi eta Erromara itzuli behar...

Santuaren aurrean jo nuen eta zirrara berezia sentitu nuen, ia negar egin nuen. Gero Batikanoan sarritan jotut, ohitu eta Jon XXIIIa, Pablo VIa, Joan Paulo Ia, eta Joan Paulo II.a entzule izan ditut. Guztien artean, organo musika gehien atsegin zuena Jon XXIII.a zen.

— Oraindik ere Batikanoko San Pedron zaude?

— Ez, orain, Santa Maria la Maggioreko basilikan nago. Organo ederra jotzen dut, ia 6.000 tubo duena, eta oso ondo zainduta dagoena gainera. Organo handiagoak

— Lehenik eta behin, ikasketa serioak egitea, eta gero organoa sentitzea. Nik organoa bihotzean daukat, eta kalean paseatzen ari naizenean ere, organoa jotzen joaten naiz.

— Eta Arrasateko giro musikalaria buruz zer diozu?

— Hasteko, Arrasaten lehen organo ederra zegoela esan behar da, barrokoa, oraingoa baino ederragoa, erromantikoa berau. Hemen inguruko organorik hobere-na Bergarako San Pedron dago. Eta Arrasateko musika giroari buruz esan behar gauza handia dela, Italian ezin bait daiteke pentsa hain herri txikian akademia ere egon daitekeenik.

— Nola ikusten duzu zeure jaioterria hain urrunetik?

— Beti saiatzen naiz hemengo berri edukitzen, harremanei nolabait eusten, Arrasate bihotzean daukat eta. Ez bakarrik bihotzean, Erroman dudan logela ere Arrasateko argazkiz josita bait daukat. Daukadan argazkietatik bat Udalaitezkoa da, eta gainera egunero esnaterakoan ikusten dudana lehena. Niretzat, goizero esnatu eta Udalaitez ikustea gauza handia da, lotura ez galtzeko modua dela iruditzen zait.

“ Organoa eta neure jaioterria bihotzean dauzkat”

— Teologia ikasi, eta organo ikasketetarako Santa Cecilia kontserbategian sartu nintzen. Puntua, kontrapuntua, armonia, konposaketa... ikasketak burututa Sienara bidali ninduten, perfekzionamendurako.

— Eta jo?

— Sienatik Erromara itzuli nintzenean berehala organoa jotzen hasi nintzen. Lehen aldiz, Pio XII.a Aita

ere badira hortik zehar, baina nekez soinu ederragoa dutenak. Organua ondo entzuteko, lehenik organista ona behar da, bigarrenik organo ona, eta azkenik, toki egokia. Santa Maria la Maggioreko basilikak, erromanikoa denez, akustika ezin hobea dauka, eliza erromaniko guztiak bezala.

— Zer behar da organujole ona izateko?

Eskubaloian geroz eta okerrago

Arrasatearrak maila galtzeko arriskutan daude

Arrasateko eskubaloi taldearen jokoan aldaketa-rik ez bada ematen, datorren denboraldian Gipuzkoako mailara jaitsiko da. Denboraldi hasieran, kontuan hartuta iazko taldetik aurtengora aldaketa asko egon zirela, ez zegoen gauza gehiegi egiteko asmorik, baina bai behintzat mailari eusteko konfidantza. Gaur egun, ikusirik taldeak egiten duen jokoa eta atera dituen emaitzak, mailari eusteko konfidantza hori ere galdu da. Esandakoaren adierazgarri, joan den asteburuan Salesianos taldearen aurka jokatutako partidua.

Barakaldoko taldea ez da beste mundukoa, eta hori argi gelditu zen arrasatearrak Barakaldon jokatu ondoren garaipenaz etorri zirenean, baina hala ere gai izan ziren partidua 20 eta 24 irabazte-



Horrelako asko jaurti beharko dituzte arrasatearrek zuloti k ateratzeko.

ko. Partiduen hasiera ez zen txarra izan arrasatearrentzat. Denbora pasa aha-

la gauzak okertzen joan ziren, atsedenaldirako emaitza 9 eta 10koa zelarik.

Ikusirik markagailuko alde txikia zela, zaletuek partiduko bigarren zatirako etxekoan erreakzioa espero zuten, baina horren ordez etxekoan porrota etorri zen. Normala denez, Barakaldokoek egoera probetxatu zuten eta inolako arazo barik garaipena eskuratu.

Esan bezala, arrasatearrak maila galtzeko arrisku bizian daude, hori egiaztatuzeko sailkapenari begirada bat ematea nahikoa da: azken postua, 5 punturekin. Jokatutako 12 partiduetatik bi bakarrik irabazi dituzte, bat berdindu eta gainontzekoak galdu. Egoerari buelta emateko erantzuna berehalakoa izan behar, datorren asteburuan Escolapios taldearen aurka. Partidu hori galduz gero, taldearen barruan edozer gerta daitekeela esatea ez da gehiegi.



Atletismoan ederki

Pasa den asteburuan Elgoibarren burututako Mugerza frogan emaitza bikaina lortu zuen Arrasate Kirolak taldeak, izan ere taldeei dagokien sailkapenean bigarren postua lortu zuten, aurretik Irungo BAT taldea besterik eduki ez zuelarik. 65 izan ziren lasterketa horretan parte hartu zuten korrikalariak, Arrasateetik joandako lauek amaitzea lortu zutelarik. Jabier Mentxaka 38.a izan zen, Enrike Kabiketa 43.a, Pedro Zalama 45.a, Alfonso Luelmo 46.a, eta Luis Fernandez 47.a. Zorionak denei.

LURRINGEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

 **MIKEL**

Eskaiola, pintura eta kortexozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

PODIUMA

JABIER MENTXAKA

*Korrika eginez
ondo pasatzen*



nintzen entrenamenduetarako denbora ezagatik, baina azkenean beti bezala nabil, ahal dudanean entrenatuz".

Aparteko markarik ez badu egin, Jabier Mentxakak atletismoan daraman denboran erdi-fondo eta fondoko frogara askotan hartu du parte. "Hasieran 800 metrotako frogan ibili nintzen, gero 1.500 metrotakorapasa nintzelarik. Orain krosa egiten dut, eta uste dut normala dela erdi-fondoko frogetatik fondoko frogetara pasatzea, adinean aurrera joaterakoan abiada galtzen da eta. Maratoi frogara pare bat ere egin ditut, eta bukatzea ez zait zaila iruditu, kontutan hartzen bada entrenamenduberezirik egin gabe joan nintzela".

Arrasateko atletismoari begira Mentxakak ez da batere baikorra. "Hemen betikoak garetia iruditzen zait, eta ez dauzkagula Arrasatek merezi dituen instalakuntzak".

Jabier Mentxakak, beste lau arrasatearrekin batera, Elgoibarren burutu zen Mugerzaren oroimenezko lasterketan parte hartu zuen, 38. postua eskuratuz eta era horretan Arrasateko taldeak lortu zuen bigarren postua lortzen lagunduz. "Beno, nik sekula ez dut aparteko emaitzarik lortu atletismo munduan, bizi guztia korrikan banabil ere, eta horregatik ez diot garrantzi handirik ematen Elgoibarren 38.a izateari. Niri atletismoa gustatzen zait, eta korrika egiten ondo pasatzea lortzen dut, niretzat hori nahikoa da". Bizitza guztia korrikan daramala dio Jabier Mentxakak, eta ez zaio arazoirik falta, zeren dagoeneko 20 urte bait daramatza Arrasateko taldean, berak 34 urte dituelarik. Dena dela, inoiz ez dela behar bezala ari izan, dio Jabierrek. "Atletismoan zerbait ona egin ahal izateko ordu asko sartu behar dira, eta sekulan ez diot denbora gehiegi eskaini. Bizitzeko lana egin beharra dago, eta horrek egunaren ordu asko kentzen ditu. Gehiago esango nuke, ia atletismoa alde batera uztekoan egon

Centraljet-en partidua

Partidu oso garrantzitsua jokatu behar du Arrasateko Saskibaloia taldeak larunbat honetan. Izan ere, arrasatearrak sailkapenearen hirugarren postuan daude eta larunbatean Loiola Indautxu taldea izango da bisitari Musakolan, sailkapeneko bigarren postua daukan taldea, hain zuzen. Arrasatearrak partidu hori irabazteko gai izango balira, datorren denboraldirako igotzeko borrokan sartzeko pausu garrantzitsua emango lukete. Beraz, kontuan izanik arrasatearrentzat partidu honek zer suposa dezakeen, zalegoen laguntza osoa espero da.

Iñaki Herrero torneo

Aurreko urteetan egin duen bezala, Mondra taldeak Iñaki Herreroen oroimenez futbol torneo antolatu du, zeuden eragozpenak gainditu ondoren. Aurtengo edizioan torneo haur mailan jokatuko da, emakumezko eta gizonezko taldeak aurkeztu ahal izango direlarik.

Atletismo dominak

Pasa den asteburuan, Anoetan burutu zen Gipuzkoako txapelketan, ondo samar ari izan ziren atleta arrasatearrak, bi domina lortu bait zituzten. Arrasatearren dominak altura jauzian lortu ziren, bata zilarrezkoa eta bestea brontzezkoa. Alberto Iriartek lortu zuen zilarrezko domina, 1,93 metrotako jauziari esker, eta brontzezkoa Jose Luis Irizarrentzat izan zen, 1,85 metrotako jauzi bategatik.

Kiroldegia

Kiroldegia erabiltzen duten talde guztiei larunbatean goizeko hamaiketan egingo den bilerara deitzen zaie, instalakuntzen arau berriak ezagutzera emateko.

Uribarri Zeramiketean gauzkazu zain

Uribarri etorbidea 22, etxabehea
79 81 80 / 77 09 59 ARRASATE

Axulei eta lurzoruen erakusketa eta salmenta; zure etxerako kalitatea eta aukera.

Ruper Ordorikaren "Ez da posible" disko berria kalean

Posible da, Ruper

Herri txiki hura gerra eta gatazka historiko guztiak galtzen ohitua zegoen. Hain zegoen ohitua, non herritar askok etsipenari amore eman eta herri kontzientzia ahuldua edo galdua zeukan. Kontzientzia horri eusten ziotenek, berriz, hezurreraino sartua zeukaten galtzailearen arantza, guztiz barneratua biktimaren papera. Ghettoaren mugek gaindiezinak ziruditen eta, azken finean, alferrikako borrokatan aritzea baino erosoagoa zen barruti hartan mugitzea. Lehengoari eusten ere bazegoen nahiko lan, bestalde.

Gauzak horrela, ilargi

betearen argi goibelpean bildu zen gau hartan ere herritar konszienteen batzarrea, hogeitazortziero bezala. Bazi-rudien batzarrea betiko moduan joango zela berriro ere, ohizko kexu eta aieneak entzungo zirela, eta beti bezala elkartasunaren gozoa eta etsipenaren mingotsa eramango zituela bihotzean batzarkide bakoitzak etxertzeko orduan. Baina, ustekabean, urte mordoia isilik zerman kantari gaztea zutitu egin zen eta honela mintzatu zitzaion batzarreari:

"Lagunok, ez dut gehiagorik galtzailearena egin nahi, aski dut horretaz. Hemen duzue prestatu dudana azken lana, nire disko berria. Lan

ona egiten saiatu naiz eta espero dut zuei ere atsegina gertatuko zaizuela. Baina ez naiz horrekin konformatzen. Diskoa besapean hartu eta banao ghettoko hesietatik kanpora, hangoei ere entzunaraztera. Prest nago beraiengana hurbiltzeko, hangorik bideak ibiltzeko eta beraiengandik dituzten bitartekoak




erabiltzeko. Euste hutsarekin ez dut aski, irabazten hasi nahi dut".

Eta harridurak eragindako isilunea aprobetxatuz, diskoa entzun arazi zien. Eta berehala harriduraren keinua pozarenak ordezkatu zuen. Diskoa benetan ona zen, zuzena eta mardula, erakargarria eta landua, freskoa eta sakona, ghettoz kanpokoei tarteka entzuten zitzaienen mailakoa, haietako asko baino hobea. Herri kutsu nabaria zerion eta, aldi berean, edonori gustatzeko modukoa zen.

Irabazten hasteko guztiz aproposa.

Mikel Irizar



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentruak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Goian Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnoak: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74, O1170 LEGUTIO

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hizkuntzaren posibilitateak

Aurreko astean, euskera ezagutu gabe ezin dela erabiliesaten genuen. Hala ere, irakurleak ondotxo dakienez, nahiz eta euskera ezagutu, horrek ez dakar berez eta besterik gabe euskara erabilitea. Adibideak sobran, ezta?

Eta oso sinplea dirudien arren, gogorarazi beharra dago euskeraz egiten ez den guztia erderaz egiten ari dela; eta hau horrela izanik, bi hizkuntzen artean alde zurretik gaztelaniaren alde dagoen diferentzia handiagotzen ari dela, eta ederrago dena, normala eta estereotipo bihurtzen euskaldunen artean.

Honela bada, euskera

normaltzen hasiko bada, ohar gaitzen gaur erderaz egiten dena euskeraz egiten hasi beharra dagoela, bestela ez dagoela ez normalizazio ez otxokuartorik, zorioneko elebitasun sozial orekatua ezinezkoa dela, eta posible izango balitz ere oso "zozoa" izango litzatekeela. Imajina ezazue Arrasaten bizi garen guzti-guztiok euskera eta gaztelania berdin-berdin ezagutu eta erabiltzen ditugula, dena bi aldiz egiten dugula. Zein zozoa, ezta? Baina ezta burutik pasa ere, hori gezurra da eta, nahiz eta ustezko jakintsu askok etengabe errepikatzen dituzten halako lelokeriak: beldur dira arazoa behar den moduan

planteatzeak ekar ditzakeen ondorioez eta horrexegatik esaten dituzten gezurrak. Morfinak mina bare dezake baina inoiz ez gaitza sendatu.

Eta testuinguru honetan, aipagarria da Siadecoren ikerketa baten Tolosaldeko gazteek salatzen duten "gezur soziala". Esan nahi dutena: Instituzioek, politikoez eta bestekeo ardurak daukaten heldu asko etengabe ari dira errepikatzen "euskeraz bizi", "euskeraz hitz egin" eta eurok gaztelaniaz egiten dituzte euren lanik gehient-su-gehientsuenak. Hori da gezur soziala, alegia, nork bera egiten ez duena besteei egin dezatela eskatzea.

Baina Tolosa eta gainerrako zonaldeetako gazteentzat galderak airean dira: Zuek "gezur sozial" honekin jarraitu nahi duzue, betirako, euskarak sinbolo huts eta alfer izaten jarrai dezan nahi duzue?

Bukatzeko, irakur dezagun Bitoriano Gandiagaren poema eder bat, aurretik esandako guztia laburbiltzen duena.

Euskarak ez du errurik, nik ez diot ezarriko, euskarak ez du errurik. Neu naiz errudun euskara indartu ez zaidalako, su-arma dudalako, eskutan hartu ta zirt-zart ez darabilkidalako nonahi eta zernahitarako.

Atalataikoan

Hitzaldia

• **Gaia:**

DIBORTZIOA

Araudia (Praktikan ematen diren arazoak)

• **Emalea:**

NEKANE SAN MIGEL (Abokatua)

• **Egunak:**

urtarrilak 24, 31 (ostegunak)

• **Ordua:**

arratsaldeko 3etan

• **Non:**

AEDn

Antolatzailea: AEDko emakume taldea



Jabier Markos,
TU-Lankideko kazetaria

Jabier Markos

Hamazazpi urte dauzka Jabier Markosen Simca 1.200ak, baina horregatik ez dabil gaizki. Gasolina baino olio gehiago gastatzen diola ziurtatzen du Markosek, eta autopistara sartzen denean gainontzeko guztiak aurrea hartzen diotela. Halere, Markosek ez du lasaitasunik galtzen, "garrantzitsuena iristea da, eta ez noiz iristen zaren. Gainera gidatzea gustatzen zait, baina mantso-mantso". Dena dela, Markos auto berria ekartzekotan da, oraindik zer ekarri ez dakien arren.



Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Urteberria Udalaitzen

Pentsatu ez arren, oraindik ere badaude urtero urtero, Urte Berri egunean Udalaitezera mugitzen direnak aurreko gauean juergan ibili eta etxeko oheko izare berotu bat eman gabe. Baina, nahiz eta aurtengoa urte partaide-tsua izan, ez dugu ahaztu behar "baja" garrantzitsuak egon direla tontorrean, gaueko "dopping" aren erruz. Hala ere, datorren urterako hitza dagoeneko hartu diegu batzuei eta agindu digute aurreko gauean ahoari espada-trapua jantziko diotela. Igoera astun baten ondoren urteko lehen goiza mendia- ren edertasunean eta hego- haizearen goxotasunean go-



zaten izan ginen, baina batzuentzat, itxura denez, ez dira nahikoak haizea eta lekua egun handi hori ospatzeko eta mariskoa, txanpaina eta bezperan izaniko afariko

soberakinak eraman zituzten. Aipatzeko ezin utzi, aurtengoan ere Udalako taberna biak topian egon direla, abastorik eman gabe gaupaseroei eta menditik gentoze-


nok ikusita pentsatzen zuten nahiko lo eginak ginela, aurreko gauean mahatsa jan orduko oheratu ginela.

Je! Balekixe...

Hankamotz

DANTZA EMANALDIA

TALLER DE DANZA



Traspasos: IENDO

- **Urtarrilak 19, larunbata**
- **Gaueko 10.30etan**
- **Amaia Antzokian**
- **Sarrera: 500 pta.**
- **Gazte txartelarekin, 300 pta.**



T R A S P A S O S

Seguruetan aintzindari.

Egunetik egunera guztion beharrei egokitzen ahalegintzen garelako pertsona, familia, industria bakoitzaren neurrira egunerakotutako poliza gama, errazak eta ekonomia guztietara moldatzen direnak ditugulako.

Poliza aintzindariak.

 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK





Aste gazte

Zer eskatzen diete euskaldun gazteek euren bikoteei?

1. Izaera atsegina.
 2. Inteligentzia.
 3. Gizabide eta kultura.
 4. Langile ona izatea.
 5. Itxura erakargarria.
 6. Etkezale eta umezale izatea.
 7. Osasun ona.
 8. Jokaera etikoa.
 9. Ekonomi maila ona.
 10. Pentsaera berdina izatea.
 11. Erlijiotasunez bizitzea.
- "Euskal Herriko Gazteak-1990" Aurreko urteetako ikerketekin konparatuz, ezaugarri fisiko eta materialei (itxura erakargarria, osasuna eta ekonomi maila) garrantzi handiagoa ematen zaie, etkezale eta umezale izateari garrantzi gutxiago ematen zaielarik.

Lana

• Gaztelaniazko Elkarrikerketak - Laguntzaile lanpostu-deialdiak, Filologia edo Filosofia eta Letretako (dagokion espezialitatean) karreraren 5. mailako ikasleei zuzendua:

- Italiar atalean: 10 lanpostu, Italiako ikastetxeetan iharduteko.

- Frantsez atalean: 5 lanpostu, Belgikako ikastetxeetan iharduteko.

211 lanpostu Frantzian.

- Alemanera atalean: 3 lanpostu, Austriako ikastetxeetan iharduteko.

23 lanpostu Alemanian.

- Ingeles atalean: 12 lanpostu New Yorken.

5 lanpostu Irlandan

200 lanpostu Britania Handia eta Iparraldeko Irlandan.

Epea: 91-1-24. (BOE 90-12-10)

Camp America

• 18 eta 25 urte bitarteko adinekoa bazara, ingeles maila ona baduzu eta Estatu Batuetako udako kanpamentuetan begirale lan egitea gustako balitzaizu, has zaitzake mugitzen. Zure eskaria onartuz gero, Londres-EEBB joan-etorriko bidaia antola-

tzaileen kontura; lanaren truke "pocket-money", eta Estatu Batuetatik zehar egun batzuk zure kabuz ibiltzeko aukera.

Au-pair

• Kanada, Ingalaterra, Irlanda, USA, etab. ingeles hizkuntza hobetzeko leku aproposak izan daitezke. Au-pair lan egiteko iraupen ezberdinetako egonaldiak (3 hilabetetik aurrera). Interesatzen bazaizu, informazio zehatzagoa emango dizugu.

Lehiaketak

• Emakumeentzako Gazteizko Udal Zerbitzuaren I. Kartel Lehiaketa. Lema: "Martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna". Sari bakarra: 150.000 pta. Lanak aurkezteko azken eguna: urtarrilaren 25a.

• 1991ko Artesport Saria, Pintura atalean. Gaia: Kirola arlo guztietan. Sariak:

1.000.000 pezetako sari bakarra eta 500.000 pezetako akzesit bi. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 31a.

• Posta- Seilu II. Diseinu-Lehiaketa, Japoniako Ministeritzaren deialdia. Bi maila: a) 19 urtetik gora, sariak: 1.000.000 yeneko saria eta 300.000 yeneko 10 sari; b) 18 urtetik behera, sariak: 500.000 yeneko bat eta 150.000eko 10 sari. Lanak aurkezteko azken eguna: urtarrilaren 31a.

• "Jaime Gil de Biedma" I. Poesia-Lehiaketa. Gaztelaraz, gai librekoa. Lanek argitaragabeak izan behar dute, gutxienez, 700 bertsoetakoak. Saria: 1.000.000 pta. eta lanaren argitaratzea. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 28ra arte.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

**ANALISI KLINIKOAK,
LABORATEGIA**

I. Laborra Erdozain

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)
GINEKOLOGI KONTSULTA

Zerkaosteta 17, etxebeha, Tfnoa: 79 20 18
ARRASATE

Eslu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

ALTUNA

**Lurrindegia
bisutegia
drogeria**

Maalako Errabala
Tfnoa: 79 14 23

ETXEBIZITZAK

- **Etxebizitza alokatzen da Gasteizko Adriano VI kalean.** Interesatuak dei 79 31 77 tfnora.
- **Merkatala lokala salgai.** 119 metro karratu, 60.000 pta/metro karratuko. Helbidea JL. Iñarra pasealekua, 26. Tfnoak.: 79 99 81 / 79 92 43.
- **Etxebizitza salgai Oñati kalean.** Hiru gela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena kanpora begira. Tfnoa: 79 94 51, gaueko 9etatik 11ak bitartean.
- **Etxebizitza salgai Santamainan.** Hiru gela, bainugela, sukaldea, jangela eta trastelekua. Guztiz kanpora begira. Dei egin 79 58 05 telefonora.
- **Neska behar da etxebizitza konpartitzeko.** Deitu astelehentik ostiralera bitartean gaueko 9.00etatik aurrera 79 54 61 tfnora.
- **Donostian etxebizitza konpartitzeko txokoren bat baldin baduzu deitu 79 24 52 tfnora.** Joseba
- **Arexabaletan erdialdean etxebizitza salgai.** Tfnoa: 79 85 45.
- **45m²ko lokala saltzen da oso merke.** Edozein motatako negozioa jartzeko. Interesatuak dei tfnoa. 94 - 682 04 83. Astearte-larunbata 9etatik 1era.

LANA

- **Andra euskalduna etxeko lanak edo umeak zaintzeko prest.** Tfnoa.: 79 07 73
- **OHOKo klase partikularrak ematen dira** euskaraz zein erdaraz. Tfnoa.: 79 26 19 Itziar.
- **Emakumea umeak zaintzeko prest.** Tfnoa.: 79 97 58.
- **Emakumea afariak edo bazkariak zerbitzeko prest.** Deitu 79 78 65 tfnora

- **Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Interesatuak dei egin 79 29 05 edo 79 77 57 tfnoetara.
- **Fisika klaseak ematen dira.** Goizean eta arratsaldean. Tfnoa: 77 13 95
- **Erregegi batean astebukaeretan lana** egiteko bi emakume behar dira. Tfnoa: 76 22 68
- **Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak.** Tfnoa: 79 62 89
- **Andra batek etxeko lanak egingo lituzke** orduka. Tfnoa: 79 15 56
- **Emakumea behar da Gasteizen etxeko lanak eta ume bat zaintzeko.** Tfnoa: (945) 23 29 74 (Gauetz)
- **Neska euskalduna behar da etxeko lanak** egin eta ume bat zaintzeko. Interesatuak dei egin 77 08 09 telefonora.

SALEROSKETAK

- **Orbea Nordkapp markako mountain bike** bizkileta oso egoera onean salgai. Prezioa: 55.000 pta. Tfnoak: 77 05 00 eta 79 02 11 8.30etatik 12.30etara eta 14.30etatik 18.30etara. Antonio
- **Mercedes 409 D furgoneta salgai.** Dei egin 79 27 19 tfnora. eguerdiko 1.00etik 3.00etara edo 8.00etatik 10.00etara.
- **Antezko jaka flekoduna daukat salgai.** Berria. Tfnoa: 76 50 58. Beatriz galdetu.
- **Yamaha 250 SR motorra salgai.** Dei egin 79 63 89 tfnora.
- **Fiat 1 turbo salgai.** Tfnoa: 79 69 98.
- **Telefunken Mod. MP143 14'ko telebista salgai.** ETBko programa batean irabazitakoa, kaxatik ateratzeko. Interesatuak deitu 79 91 16 tfnora.

• Adi mendizale!

- Kastinger goi-mendiko plastikozko botak, barreneko botinaz 40-41 zenb.
- Kamet larruzko goi-mendiko botak 43 zenb.
- Camp markako kranpoiak eta pioleta salgai. Nahiko merketxo. Interesatuak deitu 79 92 92 tfnora. Juan Carlos.
- **Orbea Mustang mendiko bizkileta,** kalapiesak, argia, llanta eta pinioi berriak. Egoera oso onean 40.000 pta. gutxi erabilia. Tfnoa: 795465 egunero gauetz. Garikoitz galdetu, 9:00etatik 11:00etara.
- **Karro denda berria salgai.** Tfnoa: 799055 (94) 681 75 06.
- **Sukaldeko mahaia eta aulkia erosiko nituzke.** Tfnoa: 79 59 72.
- **Ebro L-35 kamioneta toldo eta guzti salgai.** VI-H. 190.000 km. Tfnoa: 945 - 44 51 12. Aramaio.

DENETARIK

- **Bi gazte larunbat goizetan buzoneo edo halakoren bat egiteko prest.** Harremanetarako dei egin 79 55 35 tfnora. Arratsaldeko 7etatik aurrera. Mikel
- **Bai, bai zuei, Jo ta fuegokoei. Non zaudete?** Eta amonari zer gertatzen zaio? Ez dakizue idazten ala zer gertatzen da?. Gorantziak Baionako bi sorginei. Urte berri-on!!! Guztioi, Jo ta fuego.
- **Non, non dago Jo ta fuego?** Hor amonaren gonapean hotz dagoela eta irtetzeko beldurrez. Baina, beno ordua da berriz ere Jo ta fuego martxan jartzeko ala ez? Animatu idazten Jo ta fuego.

ARRASATEN HILDAKOAK

Felipe Madina Bengoa,
Urtarrilaren 1ean, 74 urte.
Sologaitoa Iriarte Santos,
Urtarrilaren 4an, 76 urte.
Berastegi Zabala Trinidad,
Urtarrilaren 7an, 81 urte.
Murguzur Azkarate Jose,
Urtarrilaren 8an, 91 urte.
Hidalgo Garcia Francisca,
Urtarrilaren 11an, 86 urte.
Pajuelo Merino Josefa,
Urtarrilaren 12an, 81 urte.
Valle Sedano Jesus,
Urtarrilaren 13an, 33 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Simon Kruzeta Musakolako okindegikoa



- **Ogi normala ala integrala?** Ogi normala gustokoagoa dut.
- **Ogia banatzea ala jendea dendara etortzea?** Beti hobe da jendea norberarengana etortzea.
- **Paseatzea ala etxean gelditzea?** Paseatu nahiago dut, gainera orain jubilatuta egonda ahal dudanean irteten dok.
- **Telebista ala irratia?** Ez zaizkit gehiegi gustatzen, baina aukeratzekotan, telebista.
- **Sukaldari ala jatun?** Jatun prestatzen baino hobea naiz.
- **Barazkiak ala haragia?** Ez bata eta ez bestea, arraina.
- **Uda ala negua?** Udaran hobeto, soseguz ibiltzeko, perretxikuak batuz eta horrela, aurren ere makina bat ekarri ditut.
- **Dantza egitea ala begira egotea?** Dantza egitea gustatzen zait, baina horretarako garaia joan zaigula uste dut.
- **Gerizpetan ala eguzkitan?** Egoteko gerizpetan, baina ibiltzeko gustorago ibiltzen naiz eguzkipean.
- **Egoteko, umeak ala helduak?** Kuadrilaz egotea ikaragarri gustatzen zait, eta umeekin ere oso gustora egoten naiz.
- **Sua egiteko, egurra ala ikatza?** Nik nahasturik erabiltzen ditut, baina nahiago su-egurra.
- **Lana, gaez ala egunez?** 47 urtez lanean ibili naiz, eta beti nahiago izan dut egunez egitea.
- **Txikiteoa, arratsaldean ala eguerdian?** Ez dut gehiegi egiten, baina uste dut eguerdian giro hobea egoten dela.
- **Berba egitea ala entzutea?** Lagun artean egotea gustatzen zait, baina berba egiten baino entzuten.
- **Konpainia egiteko, txakurrak ala katuak?** Txakurrak, neurea egunero bi aldiz ateratzen dut paseatzera.

Artxibotik

Poematxo hau Arrasateko Udaletxeko Artxiboan aurkitu zuen lehen zegoen artxibariak. Aintzinekoa den arren, 1682ko dokumentu baten dago eta, erraz ulertzeko modukoa da. Egilearen izena ez dugu ezagutzen, baina ziur asko arrasatearra izango zen, hementegoa bait da erabiltzen duen euskara.

Orduko dokumentazio guztia gazteleraz dagoela kontuan izanik, gauza bitxia da kartaren egileak euskara erabili beharra izan zuela bere buru eta bihotzeko sentimenduak adierazteko. Hona hemen, artxiboan agertzen zaigun bezalaxe jaso:

Larrosa crabel jasmin & lore
galant gustiac baturic
Erramilete ederbat dago
errionetan jaioric
Ainda ederra dauco egusquia
confundidua arturic

A. O.

comercial
san juan

Garibai 12,
Tfnoa: 79 13 05

hikein
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,
Tfnoa: 79 13 84



KILI-KOLO
Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE



Mondragoeko reketeak, 1936

Bigarren Errepublikara iratzen garaian karlistek errepublika irauli eta monarkia (gogoratu karlisten hiru printzipio nagusiak: tradizio katolikoa, monarkia eta foruak) ezarriko zuten talde armatuak antolatu zituzten: tertzioetan eratutako **reketeak**. Hasieran euren eman nahi bazuten estatu-kolpea, azkenean, negozio luzeen ostean, Francok gidatutako altxamendu militarrekin bat egin zuten. 1937ko apirilean azkenik, Bateratze Dekretuaren ondorioz, Falangerekin egin zuten bat.

1936ko uztailaren 18an gerra piztu zenean, hainbat eta hainbat mondragoetar reketeen taldeetan sartu ziren. Urte bereko urria hasieran, Arrasate, Oñati eta Aretxabaletako reketeek *Zumalakarregi tertzioa* eratu zuten, gudari eta errepublikazaleen kontra gudukatzeko. Tolosa eta Oñatin ibili ondoren, Untzilla, Aramaioko mendiak, Udalaiz, Elorrio, Malmasin, Bilbo eta Asturiasen egin zuten gerra. Tertzioa desegin eta gero Montejurra-aren hirugarren eta laugarren konpainietan banatu zituzten, eta Valentzia eta Kataluniako fronteetan burukatu ziren.


Argazkian hiru rekete gazte mondragoetar: **Lorenzo Uribetxebarria** "Eperra", artean 30 urtekoa, Zerrajeran zebilen ajustadore. **Joxe Zabaleta**, 17 urtekoa, Iturriotz kaleko harategian morroi zebilena eta **Luis Ginart**, 19, Artzamendiren lantegian zebilena. Lorenzo 68 urte zituela hil bazen ere, 1976an beraz, beste biak gerran hil ziren 17 eta 20 urte zituztela, Joxe Anbotosten eta Luis Bot-en, Ebroko frontean.

**PUB
HAIZEA**



ENARA 
OSAGARRIAK

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32




FERIXALEKU ESKOLA PUBLIKOA




ASMAKIZUNA
 Urutija bidaki nahi baduzu, karta hori nure tukan utzi beharko duzu. Zer naitz?



2. MAILA



Zutabek ordenaturik jartzeko badituzue, oso erraz asmatuko duzue mezu hau



6. MAILA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
 HELBIDEA.....
 HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

**MUNDUA KONTROLATUKO BADA
INFORMAZIOA ERE KONTROLATU EGIN BEHAR**



Esan nahi diot berorri, On Kixote jaun handia, jan gabe egoteak ez dakarkiola gauzonik gorputzari.

Santxo adiskidea, gure gizatasuna defendatzeko beste armarik geratzen ez denean gose greba baino, malketepese Santxo, heldu egin behar zaio derrigorrez.

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



J. M. Heriz

**Konpromezurik gabeko
aurrekontuak**

Otalora Lizentziatua. Arrasate

✓ **Baker eta Aziz prentsaurrean:** Goizean goizetik komunikabide guztiak jo eta ke ari izan ziren Suitzan egun hartan, asteazkena, egin behar zen elkarrizketaren berri emanez. Espainia mailako irratia handi guztiak berriemaile bereziak zituzten Genevan bertan. Denetara mundu guztiko mila kazetari baino gehiago bildu omen ziren elkarrizketaren berri ematera. Baker eta Aziz jaunak bileratik berandu irten arte inork ez zekien gauza handirik, baina hala ere irratiek koneksio ugari egin zuten Genevarekin.

Ikusgarriena aitzitik, Baker eta Azizek berak hotelean bertan eman zuten prentsaurrekoa izan zen. TVEren bigarren kateak eman zuen eta ondo eman ere. Han genituen gure aurrean, zuzenean, munduko etorkizuna beren esku bide zutenak, mundu guztiko kazetarien galderei erantzuten. Badakit gauza serioagoa dela, baina goi mailako kirol emankizunik ederrena bezain erakargarria izan zen, izan ere pantailaren aurrean iltzatuta geunden mundu guztiko hiritarron ikusmina asetzera -ea ezer konpondu zen bilera hartan- bait zetorren.

Hizlari, kazetari (bat bere kronika hantxe bertan, bere ordenadorean idazten ikusi ahal izan zen) eta interpretariak lan ederra egin zuten. Baita Eurovisioneko kamarek ere. Mundu mailako audientziarentzako programa mundiala, zorioneko bileran ezer ez bazen konpondu ere.

Egun hartan, ordea, arantza bat geratu zitzaidan sartuta. Euskadi Irratiak ez zuen berriemalerik izan Suitzan. Arratsalde partean eman zituen albistegiak hotzak izan ziren, zuzenean handik emandako berriak ematen duen berotasuna falta zitzaien. Errealarekin askotan joan izan dira kirol kazetariak Europako puntaraino eta joan den astean, berriz, ez dakit zergatik, informazioa euskaraz eman zezakeen inor ez zegoen Intercontinental hotelean. Tamalgarria.

✓ **Hirugarren adineko Kalejira:** Ez dakit egun bakarreko gauza izan zen ala gehiagotan egin duten, baina harrিতuta gelditu nintzen egun batean, telebista piztu eta Kalejiran lehiatzen ari zirenak Ipar eta Hegoaldeko zahartxoak ikusi nituenean. Oso ideia ona iruditu zitzaidan jubilatua eta, programara eramatea. Zorionak asmatu zuenari.

Joxe Aranzabal

Gusto baduzu

❑ KIROLAK

Asteburu honetan kirol eskaintza berezia erakusten du ETBk: tenisean Australiako open torneo, saskibaloian NBA eta ACBko partidu interesgarriak, eta futboleko aparteko neurketa, Bartzelona eta Real Madrilek jokatuko dutena.

❑ JAI GIROA

Sebastian deunaren jaiak toki askotan ospatzen bada ere, Donostiakoa eskainiko du zuzenean ETBk larunbat gauean, Sebastian deunaren jaiaren ekintzarik aipagarriena hain zuzen, danborrada. Larunbat gauean, 23.45etatik aurrera.

❑ BARREZ LEHERTZEKO

Duela pare bat aste, Bat eta Bi umorezko saioari hasiera eman zitzaion. Bertan, pisu batean bizi diren bi neska, Jaione eta Idoia, eta mutil baten, Jose Lontxoren, gorabeherak kontatzen dira. Egia esan, barre gustora egiteko aukera eskaintzen du umore saio honek, aktoreen lan bikainari irudimen handiko gidoia erantsi zaio eta. Aste honetakoan, Jose Lontxo dentista bihurtuko zaigu. Astelehena, gaueko 22.10etan.

Bideoak

EGUZKIAREN IZERDIA

HABEKOMIK aldizkariak bere ale berezian eskaintako komiki bera. Bideo hau, komikien binetak filmatuz egin da, ahotsak eta efektu bereziak erantsiz. 37 minutuko iraupena dauka, VHS eta Beta formatoatan aurki daitekeelarik.

Ostadar irratia

OSTIRALA

3.30 eta 8.30. **Errota-zahar** (Ipuinak)

4 eta 8.30. **Batutakin** (Musika klasikoa)

ASTEAZKENA

4 eta 8. **Xiru-liru-li** (Haur kantak)

OSTEGUNA


1 eta 8. **Irratia-gelan** (Gelako grabakletak)

OSTADAR Irratia. 102 FM




Alkatearekin berbetan

Datorren astelehenean, hilak 21, gaueko bederatzietan, *Alkatearekin berbetan* saioaren beste emanaldi bat egingo da. **Iñaki Mendigurenen** zuzendaritzapean hiru kazetarik, Euskadi Irratiko **Juanjo San Migel**, DVko **Manolo Zubillaga** eta Arrasate Presseko **Arantzazu Loidik**, herriaren gorabeheri buruzko galderak luzatuko dizkiote **Xabier Zubizarreta** Mondragoeko Alkateari. Saioa zuzenean izango da eta azken ordu laurdenean jendeak, telefonoa erabiliz, Alkateari galderak euskaraz egiteko aukera izango du. ATBn gaueko 21.00etan. Tfnoa: 77 08 15




Juanjo S. Migel



Arantzazu Loidi



Manolo Zubillaga



Arrakasta handia izan zuen aurtengo *Txikilandiak*. Lau egunetan zehar umeak pozaren pozez ibili ziren Gabonetako Jolasparkean. ATBk ere *Txikilandia* izeneko saio berezia eskaini zuen egunero, arratsaldeko 14.00etan. Programaren aurkezlea **Anuska Lasa** izan genuen, *Bapirulauke* aurkezten duen berbera eta umeak beste dibertitu zen. Argazkian, **Jon Garai** elkarrizketatzen kiroldegiko rokodromoan.

• Mahainguruan egon nahi?

Asteazkenetan egiten den *Zenbat buru, hainbat aburu* mahainguruan aurrerantzean publikoa ere izango da programa platoan bertan ikusten. Bertan egonez telebista saio hau nola egiten den barrutik ikusi nahi duzuenok deitu 77 08 15 telefonora eta esaiguzue.

• Marrazkiak bidali

Iku-mika taldekoek neska-mutiko guztien marrazkiak jaso nahi dituzte, astero-astero **Bapirulauke** programan erakutsi ahal izateko. Artistek beraz, orain duzue aukera zuen marrazkiak telebistan erakusteko. Zuen marrazkiak ATBra bidali, Azoka kalea, 1era, Iku-mika taldea.

asteako

PROGRAMAZIOA

ASTELEHENA

18.30 Teletestua.
19.30 **Bapirulauke**, S. Andres Herri Eskolan grabatua.
20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztuta.
20.20 **Mondrasport**, Beñardo Kortabarriak aurkeztua.
20.35 **Saltsa-maltsan**, Jaione Olabek prestatuta.
20.45 **Alkatearekin berbetan**. Iñaki Mendigurenen zuzendaritzapean, Juanjo S. Migel, Manolo Zubillaga eta Arantzazu Loidi kazetarekin. **Berriak** (errepikaldia).

22 ASTEARTEA

11.00 Teletestua.
12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa).
12.30 **Berriak** (bezperakoa).
12.50 **Mondrasport** (bezperakoa).
13.10 **Saltsa-maltsan** (bezperakoa).
13.20 **Alkatearekin berbetan** (bezperakoa).
14.30 **Bapirulauke** (bezperakoa).

23 ASTEAZKENA

19.00 Teletestua.
20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztuta.
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**, J.M. Velez de Mendizabalek zuzendua.
Gaia: Leizarango autobidea. **Berriak**.

24 OSTEAGUNA

11.00 Teletestua.
12.00 **Berriak** (bezperakoa).
12.20 **Zenbat buru hainbat aburu** (bezperakoa).

25 OSTIRALA

19.00 Teletestua.
20.00 **Berriak**, Begonia Garaik aurkeztua.
20.20 **Erretratoa**, J.R. Elortzak zuzendua. Gonbidatua: Joseba Arregi "Kataide"
20.50 **Musikantoi**, Mikel, Asier, Patxi eta Pepek egina. **Berriak** (errepikaldia).

26 LARUNBATA

11.00 Teletestua.
12.00 **Berriak** (bezperakoa).
12.20 **Erretratoa** (bezperakoa).
12.50 **Musikantoi** (bezperakoa).



SUKALDIAK

Zure etxebizitzarako apainketa-proiektuak egiten ditugu

eya

Sukalde eta bainugelako altzaritan espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Ukorik egin beharko ez zeniokeen eskaintzaren bat egingo dizute Aries. Baliteke Uranoren posizioak eragozpenen bat sortzea; ez egin jaramonik, zeureari eutsi ez zaizu damutuko eta. Egoera fisiko onean egongo zara gainera.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Honez gero erabaki serioen bat hartuta izango baduzu ere, laga ezazu dagoenetan eta ez eman derrepenteko aurrerapausurik damutzeko arriskua egon liteke eta. Hilaren erdi aldetik aurrera izango duzu bai buruan duzun gai orori aurre egiterik.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Pasa berri den urtean izan dituzun momentu zoragarrienak etorriko zaizkizu gogora datozen egunetan. Primeran etorriko zaizu gogoetok egitea aurtengoan ere horrelako ugari egon dadin saiatuko bait zara. Hilabete ona da negoziotarako.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Zuhurra izan beharko duzu azkenaldian lortutako horrekin mintzeko arriskuan bait zaude. Maitasunari dagokionez, bi helburu dituzu aurrerantzerako eta baliteke ondorio eskasak ekartzea. Gerokoak gerorako laga eta bizi zaitez orainaldian.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Irudimenez gainezka eta edozertarako gai izango zara Virgo. Saia zaitez burura datorkizun ideia guztiak aurrera ateratzen, etorkizuna zeure esku bait daukazu. Negozio arloan izango duzu batez ere arrakasta.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Bai l'nbidean eta bai eguneroko bizimoduan bira osoa emango duen aldaketa antzematen da. Baliteke aldaketa hau zeuk espero ez bezalako izatea. Badakizu aurrikusle ona izaten eta bere garaian ondo jakingo duzu zer den ondo datorkizuna.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Zorte ona datorkizula antzematen da Gemini, beraz ez zaitez zerura begira egon eta eskuartera datorkizun guztia aprobetxatu, ondorioak ez bait dira edonolakoak izango. Ahozabalik lagako dituzu ingurukoak lanerako izango duzun indarragatik.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Izugarriko egonaria izan beharko duzu Libra, gaineratuko zaizkizun arazo guztiei eutsi ahalizateko. Etxegiroan emango dira batez ere tirabira ugari. Egoera honek ez du luzaroan iraungo, baina bien bitartean belarriak baino ez itzazu erabiliko.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Baliteke alperrikako gastuak egitea Acuarus. Eroketak egiterakoan bi aldez pentsa ezazu erostera zoazena beharrezkoa duzun ala ez, horrela ez zara alperrikako gauzez inguratuko.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Badakizu aldaketa ugari datorkizula eta nortasuna sendotzea izango dela zereginik nagusia aurrerantzean. Beraz ez azaldu dudamudarik azalduko zaizun edozein egoeraren aurrean.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra


Buruarin ibiliko zara datozen egunetan eta zure finantzek benetako arreta behar izango dute dirua erruz gastatzeko joera izango duzulako. Komunikaziorako egoera hobean izango zara eta laguna eta bion arteko tirabira konpontzeko aproposa izango da.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra


Ortzia garbi garbi izango duzu nahi duzunerako Piscis. Zeu zara Zodiakoko hautatua aurtengoan, ezusteko topaketak, erromantzeak, bidaiek etab. takian potian sortuko zaizkizu. Ez ezazu desaprobetxa



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Indarberritu den lehoi arrasatearra



■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

•1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze saioa heldu zaio.

•1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m² koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADA instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.

RONEO UCEM

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza

OPEL CORSA BERRIA

ZEURE ESKU INJINERUTZA ALEMANA



Gasolina edo Dieselaz, 3, 4 edo 5 atekoa. 23 bertsio ezberdinetan. Corsa City, Swing, Gl, Joy, Joy Sport eta GSi. Zeuk erabaki zein hartuko duzun lagun. PSN-PVP: 1.004.000 pta.tatik*

*Fabrikatzaileak gomendaturiko prezioa (Penintsula eta Balearetarako) Garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne.



EZAGUTU EZAZU

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Kontzesionari Ofizialak

OPEL 
Hobeak esperientziaz